


Bergarako astekaria

Berrigara

Egino Mallea

Aurpegi
berriarekin
laster

OPEL



TALLERES OLA


Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

BUNKY

ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta



UDAKO ORDUTEGIA

★ **ASTELEHEN** ★

goizetan zabalik

★ **ZAPATU** ★

arratsaldeetan itxita

Artekailea 29 BERGARA
943 76 72 21

Chicco • Hamiltons
Babybotte • Chupetin
Fal • Hedy
...eta abar!



Musika denontzat!

Eskaintza zabala:

- ✓ Hizkuntza musikala
- ✓ Instrumentu guztiak
- ✓ Kantua
- ✓ Abesbatza
- ✓ Talde instrumentalak
- ✓ ETA HELDUENTZAKO
IKASTAROAK ERE BAI!!



Matrikula zaitzez!

1998-99 IKASTURTERAKO
MATRIKULA EPEA
MAIATZAREN 1etik EKEINAREN 19ra



INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA:
Musika Eskola
Espoloia z/g. Tf. 943 76 57 80.
Ordutegia, astelehenetik eguakitzera:
17:00-21:00.



Informatu beharra

Tomasa Zabaleta / Jubilatua

Errutina da edozein organizaziok izan dezakeen arriskueta bat. Arrisku hori saihesteko, San Josepe Jubilatuen Elkarteak komenigarria ikusten du hobetzeko helburu batzuk jartzea, helburu eskuragarriak, baina, era berean, zelabaiteko erronka suposatzen dutenak.

Irizpide honi jarraiki, aurtengo batzar orokorrean, ohiko jarduera-programazioaz gain, honako helburu hauek aprobatu ziren: barne funtzionamentuari dagokionez, bazkideekiko komunikazioa hobetzea, kuoten ordainketa erraztea eta bazkide-kopurua handitzea, 2000. urterako 2.000 bazkide izatera heltzeko asmoz. Kanpora begirako jardunari dagokionez, ostera, Udal Gizarte Ongizate batzordean parte hartzea (hau aztertu bearreko gaia da), San Martinetako danborradan parte hartzea eta jubilatuz osatutako mendi taldea osatzea.

Bazkideen arteko komunikazioa hobetzea da gure elkartearen helburua. Horretarako ezinbestekoa dugu infor-

mazioa hobetzea; beraz, hona hemen orain arte egindakoaren berri:

Kuota-kopuruari dagokionez, ordainketa erraztea da datorren urterako helburua, aurrezki kutxa eta bankueta-ko domiziliazioak erabiliz. Komenigarria litzateke jubilatuz guztiak Aitonetako (jubilatuen egoitza) idazkaritzara joatea kontu korronte-zenbakia ematera.

Aipagarria da, bestalde, bazkide-kopuruaren gorakada, helburua betetzen ari da eta hori pozgarria da benetan. Aurten 100 bazkide berri egin ditugu eta 200era iritsi nahi genuke urtea bukatu baino lehen. Bergarako jubilatuz guztien laguntza izan nahi genuke, bi-

garren milurtekora 2.000 bazkideekin iritsi ahal izateko.

Bestalde, San Martinetako danborradan parte hartzea herriaren bizimoduan azaltzeko modu interesgarria izan litekeelakoan gaude. Bazkide guztiak animatu nahi nituzke danborradan parte har dezaten. Konposizio misto baten eraketari heldu nahi diogu. Horretan interesatuta daudenek Aitonetan (jubilatuen egoitzan) izena emateko aukera izango dute uztaile erdi alderarte.

Bukatzeko, esan nahi nizueke elkarte mendi taldea dagoeneko hasita dagoela lanean. Urteko irteera-egutegia eginda dago eta, asteazkenero, goizez, 4 bat orduko irteerak egin ohi dira, betiere ariketa fisikoa egin eta inguruaz gozatzeko asmoz.

Hobetzeko helburuen gaineko informazio honen bidez, bazkide eta herriarekiko komunikazioa areagotu nahi izan dugu, elkarte irekia eta herriaren bizimoduan parte hartzen duena izan nahi baitugu, erretiratuta egotetik presente egotera pasatuz. **B**

"Hobetze helburuen gaineko informazio honen bidez, bazkide eta herriarekiko komunikazioa areagotu nahi izan dugu"

■ barruan



Itxaso Azkarate

Taun-Tauneko kidea

"'Ubu babel' gure lanak oso harrera ona izan du Brasilen egindako emanaldietan"

8. orrialdean.



Jesus Mari Garcia

Kulturista

"Olimpia txapelketan bigarren geratzea lorpen handia izan da niretzat"

22. orrialdean.



Antzine Arroyo

Auto pilotua

"Carlos Sainzekin kopiloto, Kataluniako Rallya korrituko nuke gustora"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1885. Ekainaren 21ean inauguratu zen Bergarako frontoia zesta-puntako partiduko batekin. Bertan, Angel Mujika "Bergares", sasoi hartako puntistarik onenetakoak, jokatu zuen, Eibarko "Txatua" rekin batera, San Juan eta Lizurmeren kontra. Angel Mujika gero-bera Bergarako alkate izan zen.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1887. Ekainaren 17an Sestaoko paduretan Bizkaiko lehen labegaraiak inauguratu ziren.
1920. Ekainaren 19an Xalbador bertsolaria jaio zen Urepelen.
1988. Ekainaren 19an, Berritxoako Balendin santu izendatu zuten.

MUNDUAN GERTATUA

1963. Ekainaren 16an Valentina Tereshkova sobietarra espaziora bidaia egiten zuen lehen emakumea izan zen.

z o z k e t a k

BONO LOTO

Eguakitza 12
 1-4-7-8-28-44 (osag.35/er.0)
Astelehena 15
 13-19-27-30-35-36 (osag.46/er.6)
Martitzena 16
 14-23-26-33-37-46 (osag.34/er.9)
Eguaztena 17
 17-19-22-32-38-47 (osag.39/er.1)

PRIMITIVA

Zapatua 13
 9-16-22-24-29-45 (osag.44/er.8)
Domeka 14 Gordoak
 4-16-19-39-46-49 (osag.5/er.1)

ONCE


Eguakitza 12: 63.100 (K. seriea: 013)
Astelehena 15: 28.611
Martitzena 16: 04.128
Eguaztena 17: 75.730

BESTE BATZUK

Bedelkar, harakinak: 8.611

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Azken egunotan moduan, as-
 tebukaeran ere eguzkiak la-
 gunduko digu, zeruan laino
 batzuk agertuko bazaizkigu
 ere. Zapatuan tenperaturak
 gora egingo du eta haizeak
 hegotik joko du. Domekan ez
 da aldaketarik izango.

Ilargiaren aldiak



Ilbehera: ekainak 17



Ilberri: ekainak 24



Ilgora: uztailak 1



Ilbete: uztailak 9

Eguzkia

Domeka, ekainak 21



Sortu: 05:47



Gorde: 20:50

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 11	16	11	18,3
Eguakitza 12	17	6	0,2
Zapatua 13	20	9	0,7
Domeka 14	18	13	-
Astelehena 15	19	10	0,8
Martitzena 16	20	8	-
Eguaztena 17	27	7	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Argittako

Argittakua, argitarakoa. Meza-denboran batzen den limosna.

- Eztot bota argittarakoik, eneukan ezer eta.

- Zein santun argittarako bia dok ori?

(¿Para qué demonios quieres eso?)

Argittakua batu.


Mezatan bandeja batu.

-Aurten geuri tokatzen jaku
 argittakua batzia.

Argittakua bota.

Bandejara dirua bota.

-Autsi, artuizu dizua
 argittakua botatzeko.



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Esku-ordenagailua

Philips markaren Nino 300 modelo berria, Windows CE sistema eragilearekin diharduen esku-ordenadore pertsonal txikia da. Agenda elektronikoa, kontaktu gestorea eta grabatzaile digitala ditu. Baina, gainera, posta elektronikoa bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen duten aplikazioak ere baditu. Oraindik ez du pre-
 zio zehatzik.

Farmaziak

Eguakitza 19:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 67.

GAUEZ: IRIZAR, Arrasate. 943 79 12 96

Zapatua 20:

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

GAUEZ: AMEZUA, Arrasate. 943 79 09 74

Domeka 21:

GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

GAUEZ: ZABALA, Arrasate. 943 77 16 30

Astelehena 22:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

GAUEZ: RUIZ, Arrasate. 943 79 14 09

Martitzena 23:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

GAUEZ: MORALES, Arrasate. 943 79 18 66

Eguaztena 24:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

GAUEZ: AZKOAGA, Arrasate. 943 79 15 16

Eguena 25:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 67

GAUEZ: ESPAÑOL, Arrasate. 943 79 14 88

Ogia

Domeka 21: Konde.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	000
DYA	943 76 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 83
Udalzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 03
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 43
Angiozarko medikua	943 78 30 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 53
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 02
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 63
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 32
Erregistroa	943 76 13 63
Jardun	943 76 26 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 25 65

zorion agurrak



Ixaro "Txiki"
Ekainaren 15ean
17 urte. Zorionak!
Txabi, zure lagunak,
Elder eta gurasoak.



Naiara Ignacio
Ekainaren 9an
11 urte. Zorionak!
Etxekoak eta
lagunak.



Maria Sanchez
Ekainaren 3an
16 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Zihortza
Ekainaren 14an
17 urte. Zorionak!
Lagunak.



Toño Retes
Zorionak!
Koadrilakoak.



Ane Blanco
Ekainaren 17an
5 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Ines Mellado
Ekainaren 18an
24 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Marije Manzidor
Ekainaren 7an
urtebetetzea.
Zorionak!
Amaia eta Bat.



**Ederne
Begiristain**
Ekainaren 18an
24 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Nerea Zabaleta
Ekainaren 27an
24 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Asier Longares
Ekainaren 11n
19 urte. Zorionak!
Gurasoak
eta arreba.



Felix Alzelai
Ekainaren 12an
37 urte. Zorionak!
Familiakoak.

URTEURRENA

Jesus Larrañaga Orbea

Lehen urteurreneko meza domekan,
ekainak 21, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu
aurretik eskerrik asko familiakoentz.*



ESKER ONA

Elisabete Arana Txintxurreta

1998ko maiatzaren 18an hil zen.

*Bere senideek
eskerrak eman nahi dizkizuet
adierazitako elkertasunagatik.*



ESKER ONA

Toribio Aranguren Campos

Bergaran hil zen
1998ko maiatzaren 31n,
88 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joan zinetenoi eta
Mizpirualde egoitzako zaintzaileei,
eskerrik asko familiakoentz.*



URTEURRENA

Euxebio Mujika Unamuno

Abeletxe baserrikoa

Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainak 21,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztu aurretik eskerrik asko familiakoentz.*



hildakoak

Kontxita Quintana Lonbide
Ekainak 9, 69 urte.

jaioetakoak

Irati Lazkano Dovao
Ekainak 5
Olaia Sanchez Osuna
Ekainak 17



Nerea Larrañaga
Ekainaren 16an
urtebetete. Zorionak!
Zure laguna: Ander.



Rosa Mari Lazkano
Ekainaren 12an
52 urte. Zorionak!
Etxekoak eta Asier.



Asier Vicente
Ekainaren 19an
10 urte. Zorionak!
Etxekoak eta
Poligonokoak.



Ana Aiastui
Ekainaren 16an
22 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Iosu Unamuno
Ekainaren 23an
15 urte. Zorionak!
Etxekoak.



German Unamuno
Ekainaren 21ean
6 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Alex Ugalde
Ekainaren 22an
22 urte. Zorionak!
Lagunak.



Txispi
Ekainaren 22an
22 urte. Zorionak
sorgintxo eta mila
musu! Etxekoak.



**Gemma
Rementería**
Ekainaren 8an
35 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Jon Sanchez
Ekainaren 4an
urtebetetzea.
Zorionak!
Junkar eta Solfi.

ANTZERKIA

► **Tanttaka** taldearen "Dakota" antzezlan gaur, eguakitza, 22:30etan Elorriko Arriola aretoan. Datorren eguakitzean, ordu eta toki berean, "Como canta una ciudad de noviembre a noviembre", **Juan Echanoverekin**.

MUSIKA

► Jam. Gaur eguakitza, 22:30etan, **Bad Manners** eta **Iskanbila**.

► **Benetan** talde bilbotarra gaur eguakitza, 23:00etan Pol-Polen. Bihar, zapatua, 13:00ean, **Rogelio Botanz** euskal-kanariar kantautore.

ERAKUSKETAK

► **Julio Mendikuter**en argazkiak Kultur Etxean domekara arte.

► **Josean San Torcuato**ren plumila erakusketa Nahikari tabernan.

► **Dorleta Biainen** margoak Donostiako Amara auzoko (Podavines, 4) Kimboa tabernan ekainaren bukarara arte.

► **Ricardo Azkargorta**ren margoak Donostiako Olaetxea galerian (Aldapeta, 5) uztailaren

KONTZERTUA

Andres Calamaro eta Javier Sun

Noiz: zapatuan, 22:30etan
Non: Jam aretoan
Sarrerak: 2.000 PTA. **Takilan:** 2.500.

Andres Calamaro kantariak "Alta sociedad" bere azken diskoa aurkeztuko du bihar Bergaran. Argentinarrak, bakarlari modura, 1990eko hamarkadaren hasieran "Los Rodriguez" taldearekin izandako arrakasta errepikatu du eta publikoak zein musika kritikak harrera ezin hobea egin diote bere lanari. "Hasta luego" taldearen agurra izan zen diska kaleratu ondoren, Andres Calamarok New Yorken eta Miamin "Alta sociedad" grabatzeari ekin zion eta horretarako musiko ospetsuenen laguntza izan zuen. Esan behar da honako hau ez dela Calamarok bakarlari modura plazaratzen duen lehen lana. Izan ere, 1980ko hamarkadan, lau diska kaleratu zituen Argentinan: "Hotel Calamaro" (1984), "Vida cruel" (1985), "Por mirarte" (1988) eta "Nadie sale vivo de aqui" (1989). Horren aurretik, "Los Abuelos de la Nada" taldearekin egin zen ezaguna bere jaioterrian.

Esan bezala, bere azken diskoarekin arrakasta nabarmena lortu du Calamarok. Bertan, funk, rock, soul, reggae, tangoa edota tex-mex estiloen artean kokatzen diren kantuak landu ditu eta, hain zuzen ere, bihar diska horretan oinarritutako emanaldia eskainiko du Bergaran. Beraz, Jamera hurbiltzen direnek, "Loco", "Flaca", "El tercio de los sueños", "Comida china", "Me arde" edota "El novio del olvido" kantuen doinu eta letrekin gozatzeko aukera izango dute. Amodioa, bakardadea edota drogari buruz hitz egiten duten kantuak.

Telonero modura, Javier Sun kantari donostiarra arituko da. B



Argentinarrak "Alta Sociedad" bere azken lana aurkeztuko du.

14ra arte, astebarruan 17:00etatik 21:00etara.

IKASTAROAK

► **Islada bideo tailerrak** antolatuta, Mitxel Gaztanbidek ("Vacas")

gidoilaritza ikastaroa eman-go du uztailaren 8tik uztailaren 20ra bitartean, egunero 9:30etatik 13:30etara bitartean. Matrikulak 15.000 pezeta balio du. Plaza mugatuak. Argibideak Errotalde Jauregian edota 943 77 91 58 zenbakian.

LEHIAKETAK

► **Mariaren Lagundia** eskolaren sorreraren 200. urtemugako ospakizunak iragartzeko logotipo lehiaketa, Antzuolan, Elgetan edo Bergaran jαιο, bizi

LAKET
gizon & emakume
Barrenkalea 35 BERGARA

Usoa Pub

☎ 943 76 38 57
Irala 1

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

CAMACHO
Drogeria Usaindegia
Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

edota lan egiten dutenei zuzenduta. Lanak uztailearen (6a baino lehen Mariaren Lagundia Ikastolan jasoko dira. Irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu. Argibideak: 943 76 25 40.

► **Bergara Hiria XIV. Argazki Lehiaketa.** Lanak Kultur Etxean jasoko dira irailaren 30era arte. Argibideak: 943 76 39 96.

DEIAK

► **Oihulari Klown** taldearen emanaldia martitzenean, 22:00etan Pol-Polen.

► **Musika Eskola**ko ikasleek diploma emate ekitaldia, eguenean, hilak 25, 19:00etan Zabalotegian.

► **San Joxepe jubilatuen elkarteak** Ondarru eta Lekeitiora egun osoko irteera antolatuta du eguenerako, hilak 25. Bazkaria Lekeition izango da. Izen-ematea (2.400 pezeta) Jubilatuetan, 943 76 21 40 zerbaki. Bestalde, ekainaren 30ean ohizko **San Martzialera igoera** egingo da, bertan bazkaria egingez. Izen-ematea (1.000 pezeta) hilaren 26a baino lehen.

► **AEK**-ko irakasle izateko glotodidaktika ikastaroa uztailean. Era berean, uztailean zehar EGA ikastaroa izango da. 943 76 05 18.

► **Odol ateraldia** eguazte-

nean, 18:30etan, Seminarioko lokalean.

► **Justo Garate Arriola beka.** 1998ko deialdian soziologiako gaietara zuzenduta dago. Ikerketa-lana euskaraz egingo da, bekaren iraupena 11 hilabetekoa da eta diruzenbatekoa 935.000 pezetakoa. Dokumentazioa aurkezteko epea irailaren 1etik 30era bitartean egongo da zabalik. 943 77 91 58.

► **Udal Euskaltegiak** udako ikastaroak antolatuta ditu, ekainaren 29tik uztailearen 24ra Bergaran eta uztailearen 1etik 15era Zeraingo barnetegian. 943 76 44 53.

► **Antzuola Herria ikerketa beka.** Gaia: Larrugintza, Antzuolak eta antzuolarrek larrugintzarekin izan duten hartu-eman historikoa kontutan hartuta. Eskerak ekainaren 30era arte jasoko dira.

► **Jose Mari Etxaniz Askatu plataformaren** bilera astelehenean 20:00etan Pol-Polen. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

JAIK

► **San Juan** auzoan, eguaztenean, meza 11etan eta ondoren trikitilariak eta Jubilatuen abesbatzaren emanaldia. Bertaratutakoen artean luntxa banatuko da.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Deep impact
Eguakitza: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30.

ARRASATE. Alai zinema
Su majestad Mrs. Brown
Eguakitza: 22:00.

Sombras de sospecha
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

El astronauta
Eguaztena: 17:00.
Eguena: 17:00.

El gran Lebowski
Eguaztena: 19:30, 22:00.
Eguena: 19:30, 22:00.

EIBAR. Unzaga
Ellas
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto
El gran Lebowski
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana
Torrente, el brazo tonto de la ley
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ELORRIO. Arriola
Torrente, el brazo tonto de la ley
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.
Persiguiendo a Amy
Eguena, zine-kluba: 20:15.

DEEP IMPACT

Zuzendaria: Mimi Leder.
Aktoreak: Robert Duvall, Elijah Wood, Vanessa Redgrave eta Tea Leoni.

Karteldegian diren hainbat filme ikusita, argi dago zine katastrofista deiturikoa berriz ere indarrean dagoela. Honako honetan munduaren bukaera planteatzen zaigu, lurra-aren kontra joko duen kometa bat bait dator. Estatubatuarrek kometaaren ibilbidea desbideratzeko unti espaziala bidaliko dute eta, bien bitartean, gizakiek euren bizitzako azken uneak gertatzeari ekingo diote... Efektu berezien trebezia agertzeko egindako filmea.



ELLAS

Zuzendaria: Luis Galvao.
Aktoreak: Carmen Maura, Miou Miou eta Marisa Berenson.

Berrogeitamar urteen mugan diren hainbat emakumeek bizitzari buruz duten ikuspuntua da filme honetako hari nagusia. Bakoitzak duen izaera propioa eta bizitzan izahar eraman duen ibilbidea printzipioz aitzaki ona da baina bata bestearenganik uste baino urrunago dagoela ikusiko da...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, atsek, manparak...



Ezazu gure kontua konprometuz barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA

Tf: 943 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Bigarren urtez jarraian, Taun-Taun taldea Brasilen izan da. Talde bergararrak Curitibako jaialdian "Ubu babel" bere azken lana erakutsi du eta, era berean, Brasileko hainbat hiritan emanaldiak eskaini dituzte. Brasiletik etorri berriak, Itxaso Azkaraterekin han izandako esperientziaz berba egin dugu.

G. Nondik nora ibili zarete Brasilen?

E. Hasiera batean Curitiba eta Barueriko jaialdietan parte hartzeko asmoz abiatu ginen Brasileran baina Baruerikoa bertan behera geratu zen. Hala ere, bertan hiru emanaldi eskaintzeko aukera izan genuen eta, horretaz gain, Curitibako jaialdian, Santosen, San Jose de Rio Preto eta Hebraican (Sao Paulon) erakutsi dugu "Ubu babel". Bost lagun joan gara (lau aktore eta teknikoa) eta han izandako esperientziaz oso gustora gaude.

G. Zelako harrera jaso duzue?

E. Curitibako ikuslegoa, jaialdia izaten denez, ohituta dago horrelako lanak ikustera, oso ikuslego berezia da eta, egia esan, asko gustatu zaie gure lana. Datorren urterako ere joateko gonbidapena jaso dugu eta horrek zerbait esan nahi du. Gure Ubu ez da lan erreza, espektakulo diferentea da eta despistarekin jokatu du, klown tratamendua ematen baitiogu. Brasilen gure lanak konnotazio asko zituen, jendeak berehala ulertzen zuen mezua. Sao Pauloko Arte Eszenikoetako irakasle batek, gurea bere bizitzan ikusi duen Uburik onena zela komentatu zigun, poesia eta politika oso ondo nahasten genituelako. Emanaldi guztietan jendeak primeran erantzun du.

ITXASO AZKARATE Taun-Tauneko kidea

"Asko gustatu zaie gure lana. Brasileran bueltatzeko gonbidapena jaso dugu"



Itxasok eta bere taldekideek hilabete bat eman dute Brasilen.

G. Txotxongiloen tradizioz badago Brasilen?

E. Mamulengoa deritzonak tradizio handia dauka Brasilen baina galtzen ari da. Mamulengoa, istorioak kontatzen dituen arraza beltzeko pertsonaia da eta oraindik ere hainbat taldek horri eusten diote. Baina horretaz aparte baziren beste estilo batzuetako lanak

"Brasileko hainbat hiritan 'Ubu babel' gure azken lana erakutsi dugu. Emanaldietan izan dugun ikuslegoak berehala ulertu du mezua"

jaialdian. Mundu osoko taldeak izan dira bertan, estilo eta teknika diferentetakoak.

G. Bergarako jaialdian izandako taldeekin egoteko aukerarik izan duzue?

E. La fanfarra katalanak eta Hugo eta Ines peruarrak ere Curitiban izan dira. Helduentzako lan gutxi zegoen jaialdian baina gauza interesgarri batzuk ikusi ditugu. Pia Fraus brasildarrek adibidez, gure antzera, txotxongiloak sartzen dituzte euren antzerki espektakuloan. Beharbada, Bergarara etorriko dira jaialdiaren hurrengo ediziora. Andres Leyton Letarraren lana ere asko gustatu zitzaigun.

G. Iaz ere Brasilen izan zineten. Honez gero zertobait ezagutuko duzue...

E. Aurten gehiago disfrutatzeko aukera izan dugu. Oso ederra da Brasil, nahiz eta ez dugun gehiegi ezagutzen, azken batean Sao Paulon eta inguruan bakarrik izan baikara. Sao Paulon, bizitza handia dago goizean goizetik. Pobrezia handia ere badago eta jendeak kontuz ibiltzeko esaten zigun baina ez dugu inolako arazorik izan. Bestalde, destakatzekoa da han aurkitu ditugun zentru kulturalen funtzionamendua. Gobernuaren laguntzarik gabe, komertzianteeek eta enpresariak jarritakoak ziren eta kulturaren inguruan mugumendu handia aurkitu dugu.

G. Orain futbolarekin zoratuta ibiliko dira han...

E. Brasil eta Eskoziaren arteko partidua jokatu zen han geundela. eta futbolarena sinestezina da; partidua ikustekodea gertu egiten da, inork ez du lanik egiten. Hainbat jende ez du nahiz Brasilek mundiala irabaztean, bestela bi urtetan inork ez duela lanik egingo esaten dute. B

Turismo eta trafiko seinaleetarako laguntzak eskatu ditu Udalak

Turismo seinaleak jartzeko 11,3 milioiko aurrekontua

Turismo seinaleak jartzeko diru laguntzak eskatu dizkio Bergarako Udalak Eusko Jaurlaritzari. Asmoa, turismo seinaleak ez ezik, udalerrian zehar trafiko seinaleak ere jartzea da eta horretarako txosten bat egin da.

Eusko Jaurlaritzak turismo seinaleak jartzeko planak diruz laguntzeko dekretua kaleratu zuen martxoan eta Bergarako Udalak herrian zehar turismo eta trafiko seinaleak jartzeko plana egina duenez, diru laguntzak eskatu ditu. Turismo seinaleak jartzeko aurrekontua, 11.340.000 pezetakoa da eta Jaurlaritzatik diru laguntzak lortuko balira, lehenbailehen jarriko litzateke martxan plana.

Trafiko eta turismo seinalizazioei buruzko txostena

Xabier Aranburu museologoak, Alfonso Alonso udaltzain buruak eta Iñaki San Jose obretako ardura-dunak txosten bat egin dute, turismo eta trafiko seinalizazioari dagokionez, herriak dituen beharrei erantzuteko. Museologoak Berrigarari adierazi dionez, Bergarak ez dauka seinalizazio turistiko egokirik: "batzuk oker jarrita daude, Agarreko Garaixekoa adibidez eta beste kasu batzuetan, ostera, ez dago seinali-



Bergarako Udalak herria seinalizatzeko egindako proiektuan, herriaren lau sarreretan era honetako lau panel haundi jartzea aurreikusten da.

zaziorik, esate baterako, Turismo bulegora heltzeko ez dago inolako seinalerik, ezta herriko hainbat Monumentu kalifikatu identifikatzeko ere".

Gabezia hau dela eta, Bergarara etorri den hainbat turista ez da Turismo bulegotik pasatu, bulegorik dagoen ere enteratu ez delako. Xabier Aranburu museologoak dioenez, "seinalizazio egokia duen herri batean, egiten diren turismo kontsultak bikoiztu egiten dira".

40 seinale eta lau panel haundi

Planean zehazten denez, 40 seinale eta 4 panel haundi jartzea aurreikusten da. Honela, Euskal Autonomi Erkidegoko seinalizazio turistikoaren gidan azaltzen den ereduari jarraituz, Turismo bulegoa, monumentu inportanteenak, ermitak, parrokiak, auzoak edota gun naturalak seinalizatuko dira. Bestalde, herriko sarreretan lau panel haundi jarriko dira. Hauetan, herriari

buruzko hiru irudi, "Bergara hiri monumentala" idazkia eta, azpialdean, eskaintzen diren zerbitzuak azalduko dira.

Nolanahi ere, turismo seinaleak jartzeko ez ezik, udalerrian zehar trafiko seinaleak jartzeko premia ere jabetu da Udala eta oraindik jakiterik ez dago plana noiz jarriko den martxan eta ze eratako seinalizaziori eman go zaion lehentasuna. Esan dezagun, azkenik, turismo bulegoa datorren eguakitzean zabalduko dela. B

Herrian zehar 40 turismo seinale: Turismo bulegoa, monumentu inportanteenak, ermitak, auzoak, gun naturalak..., eta 4 panel haundi, herriko lau sarreretan, jartzeko proiektua egina dago



Finantziarioari buruz hainbat zalantza izan arren, Eibar-Gasteiz autopista udazkenean hastea aurreikusita dago.

Eibar-Gasteiz autopistari beste bi alegazio egin dizkio Udalak

Arlabanen lau erreilekoa izango da autopista

Arabako Diputazioak Eibar-Gasteiz autopistako Arabako zatia lau karrilekoa izatea onartu zuen martitzenean. Beraz, Arlabanen ere lau karril izango ditu autopistak. Arabako Diputazioaren ardurapean geratuko den autopistaren zatia 23,4 kilometro ditu (autopista osoak 44 kilometro izango ditu) eta Etxabarri-Dibinatik (Foronda ondoan) San Bernaberraino (Eskoriatzako iparraldean) doa. Zati ho-

ren aurrekontua 18.600 milioi pezetakoa da. Tartek bi zati nagusi ditu: Etxabarri-Dubinatik Lukuraino eta Lukutik San Bernaberraino.

Eibar-Gasteiz autopistaren obrak aurtengo udazkenean hastea aurreikusita dago. Hain zuzen ere, Bergara eta Soraluze arteko zatian hasiko dira lanak.

Bestalde, Bergarako hegoaldeko Maltzagaraino donan zatiari, bi alegazio egitea onartu berri ditu Bergarako

Udalak. Hain zuzen ere, autopista egiteko Ondartza baserria bota beharko balitz, saihesbiderako lotunea egiteko glorieta edo errotanda, Deba ibai aldera 15-20 metro mugitzeko aukera aztertzea proposatzen du Bergarako Udalak. Bestalde, Bergara-Elgeta errepidearekin elkartzen den gunean, Basalgorako errepidearen bidegurutzetik hurbil, autopistari irtenbidea ematea ere proposatzen du. B

Presoen aldeko Korrika zapatuan Bergaratik

Patxi Eskisabel preso donostiarraren eta kondena hiru laurdenak beteta dituzten presoen -tartean Jose Mari Etxaniz bergararra- aldeko Korrika pasatuko da zapatu goizean Bergaratik. Gipuzkoa oso zeharkatuko duen Korrika hau goizeko 9:15etan iritsiko da Zubiberrira eta bariante osoa zeharkatu ondoren, Arrasaterantz abiatuko da. Bestalde, San Prudentzioko bidegurutzean, Oñati aldetik datozenekin bat egin eta guztiek batera Arrasateko bidea hartuko dute.

Jose Mari Etxaniz Askatu plataformako kideek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte Korrikan parte hartzen. Udal igerilekuetako aldagelak erabili ahal izango dira eta, horretarako propio, goizeko 8etan zabalduko dira zapatuan. Bestalde, bizikletan parte hartzeko aukera ere izango da. Esan dezagun, azkenik, Etxanizen aldeko plataformak beste bilera bat egingo duela astelehen honetan Pol-Poleko arto nagusian. Bileran edozein herritarrek parte har dezake parte. B

Zure inbertsioak errentagarri egiteko, utz ezazu estatuko lehenengo gestore independenteak bidera zaitzan.

<http://www.abasesores.es>

AB ASESORES



Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitez 6
S.Lorentzo industrialdea
Tf. 943 76 54 35
20570 BERGARA

Industrialdeako obren epea abuztura arte luzatu dute

Ordurako pabilioiak eraikita egotea espero da

Labegaraietako Industrialdeako obren lehen fasea egiten ari den Construcciones Amenabar S.A. enpresak, lanak bukatzeko epea luzatzea eskatu dio Udalari.

Obrak 186 milioi pezeta-tan adjudikatu ziren iazko abenduan eta, aurtengo apirilean, hasieran aurreikusita ez zegoen horma bat egiteko obra-gehigarriaren lanak, beste 28 milioi pezeta-tan enpresa berberari esleitzea erabaki zuen Udalak.

Obrak egiteko sei hilabete eta erdiko epea zegoen eta uztailerako amaituta egon behar ziren.

Halere, obrak hasieran pentsatutakoa baino beranduago hasi zirela eta, epea abuztura arte luzatzea eskatu du Construcciones Amenabar S.A.k eta Udalak onartu egin du eskaria; honenbestez, obrak amaitzeko



Urbanizazio lanak abuzturako amaitzea espero da.

epea abuztuaren 15era arte luzatu da.

Lehen fase honetan, inguru urbanizatu eta lehen industria pabilioiak eraikiko

dira argazkian agertzen den inguru horretan. Labegaraietako industrialdea martxan noiz jarriko den esaterik ez dago oraindik.

Frontoiko taberna eta San Martzialgo kantina hartzeko eskariak

Astelehenean, hilak 22, eguerdiko 13:00etan amaitzen da Udal Pilotalekuko taberna errentan hartzeko eskariak aurkezteko epea. Frontoiko tabernako errentariei urtebeteko kontratua egingo zaie hasieran eta luzatzeko aukera izango da. Baldintza Pleguak Udaletxean hartu daitezke. Bestalde, San Martzialeko kantina hartu nahi duten irabazi asmorik bareko elkarte edo taldeek datorren eguaztena, ekainak 24, baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskariak Udaletxean.

Aurten San Martzial eguna, ekainak 30, martitzenean tokatzen da eta azken urteetan egin ohi den moduan letania irtengo da goizeko 7etan Santa Marinatik. Ondoren, meza izango da San Martzialen. B

ileapaindegia
eder gela

disdira

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar 3. 943 76 16 14
Ibargari 8. 943 76 54 73

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

**BEHEKO
TABERNA**

**Menestra eta konejoo
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

**ONENA
TINTATEGIA**

Barrenkalea 29 BERGARA

**Deco-Textil
ZANGITU**

Etzerako lenteria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69

Berrigara

328 zenbakia.
1998ko ekainaren 19a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97.
Faxa: 943 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Gorka Elortza. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop.
E.I. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-8599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Errekinde hauen laguntzaz:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

ESKERRIK ASKO BAZKARIRA ETORRI ZINETENOI

Bergarako jaixak aspaldi pasau zien arren, eskerrak emoten dotzuegu bertara etorri zinateen guztioi: bai zuen partehartzeagatik eta baita umore on eta lagun-tzagatik ere. Ea datorren urtean ere animatzen zareten! Animo!

*Jaixetako
berri bazkariko
antolatzaileak*

JARLEKU EROSOAGOAK NOVEDADESERAKO

Kaixo, zinea ikustera joatea gustatzen zaigun koadrila bateko mutil gazte talde bat gara eta Bergaran zine bakarra dagoenez, pelikula bat ikusi nahi dugunean, Novedades aretora joaten gara. Ez daukagu beste erremediorik. Baina, kontua da, jarleketan postura egokia hartu orduko, joan zai-gula pelikula erdia.

Novedades aretoko jarlekuak oso inkomodoak dira, ilara batetik bestera ia ez dago tokirik (ez dakigu txikientzat bakarrik pentsatuda dagoen ala zer) eta hankak non sartu ez dakigula ibiltzen gara pelikulan zehar, alde batera eta bestera; aurreko ilarakoak molestatzen.

Ez da asko pasatu Novedadeseko jarleku guztiak aldatu eta berriak jarri zituztela, baina uste dugu ez zituztela egokienak ipini. Beste toki batzuetakoak, hiriburu-tako zine aretoetakoak esate baterako, askoz ere haundiagoak eta erosoagoak dira eta nahikoa leku dago behar den moduan jartzeko.

Ea, bada, hemen ere horrelakoak jartzen dituzten eta, horrela, zinearekin disfrutatzeko aukera daukagun.

*Iban Orgaz, Xabier
Egidazu eta kuadrilakoak*

tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



atrebentzia ezpada

Aldizkariak erosteko ohiturarik badaukazu? Zelako gaiak interesatzen zaizkizu gehien?



Marcelino Carmona

Ez daukat aldizkari gogoko-erik baina askotan kioskora joan eta bertan aukeratzen dut. Normalean, motorrari buruzkoak erosten ditut.



Milagros Gonzalez

Nik ez dut erosten, baina gizonari arrantzari buruzko aldizkariak erosten dizkiot batzuetan, asko gustatzen zaizkio eta. Nik ez daukat irakurtzeko astirik...




Francisco Morcillo

Gutxi, ez daukat aldizkariak erosteko ohiturarik. Eguneroko prentsarekin nahikoa izaten dut eta, horrez aparte, ez dut aldizkaririk irakurtzen.



Lorea Garitano

Ez dut aldizkariak erosteko ohiturarik, bakarrik gurasek hartzen dituztenak gai-erik ikusten ditut, argazkiak eta horrelakoak.



Iñigo Laskurain

Bai, noizean behin aldizkariaren bat erosten dut, motor gai-erik buruzkoak interesatzen zaizkit gehien. Bestelakorik ez dut erosten.



Belen Pinilla

Bai, zientziari buruzkoak gustoko ditut, *Newton* eta *Muy interesante*. Oso ondo daude. Bestela, aldizkari larrosak ilepaindegian irakurtzen ditut.

bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Jorge, Mikel eta **Alberto** 14 urteko gazte-erik hurbildu zaizkigu aste honetan erredakzio-erik kezaxko bat azaltzeko. Hirurek, euren lagun-erik, patinekin ibiltzera ir-erik tetzea dute gustoko bai-erik na herrian ez omen dute horretarako leku egoki-erik. Herri osoan zehar ibiltzen dira, leku batetik bestera eta behin baino gehiagotan herritarren kezak entzun behar izan dituzte kalean patinekin ibiltzeagatik. Udaleko ar-erik duradunei patinekin ibil-erik tzeke ranpa batzuk jar-erik tzeke eskaera egin nahi diete. Itxura denez, due-erik la aste batzuk Udaletxe-erik an bertan izan ziren be-erik raien eskakizuna egiteko baina momentuz ez dute erantzunik jaso.

ikuspuntua: **Juan Antonio Migura**

Mundiala Bergaran

Azken astean Clementeren selekzioak jasan dituen kritikak areagotu edo baretzeko balioa duen España-Paraguay neurketa hasi da. Futbolak kirol interesen jokoa ematen du, baina espektakuluaren atzetik negozioa eta tira-bira politikoak daude.

Mundiala irabazteko faboritoetako batek porrot egin du lehen 90 minutuak jokatu ondoren, eta guztiak aieneka hasi dira. Frantziaraino joan barik, hemen bertan, Bergarako futbolak azken urteetako krisialdirik sakin-erik nanean murgilduta dago. Herri mailako fut-



bola ez da negozioa eta ez dago izkutuko interesen menpe. Harrobiarekin lan egiten duen futbolak da, etorkizuneko mundialei jaten emango diena, bizi-erik rautea besterik nahi ez duen muina. Aste honetan bertan Realak fixtatu duen Imanol Cabanillas da Bergarako futbolak sortu duen azken balioa.

Gaur, eguakitza, BKEko batzar orokorra egitekoa zen eta ez dago elkartearen zuzen-erik daritza hartzeko prest dagoen inor. Orain ar-

te egon direnak erreta bukatu dute, kritika asko eta laguntza gutxi izan dutelako.

Nori ez zaio gustatzen jokaldi bat tele-erik bistatik ikustea edota hamaikako bat zalan-erik tzan jartzea? Baina horretarako, kirolari gaz-erik tetxoekin lanean jardun behar izan dute zu-erik zendari eta entrenatzaileek, isilean eta mu-erik su-truk. Beharbada gestioa profesionaliza-erik tzeke ordua helduko zen eta ingeles, musika edota eskola orduetatik kanpoko beste ikas-erik taro batzuk ordaintzen diren moduan, hasta-erik pen mailako kirola ordaintzeko momentua iritsiko zen. Ordaindu ala musutruk lan egi-erik teko prest dauden bolondres berriak topatu, ez dago beste alternatibarik. **B**

■ asteko menua: **ixaun jatetxea**

Bakailaoa Club Ranero erara



AINHOA BERISTAIN
Ixaun jatetxeko sukaldaria

OSAGAIAK (4 lagunentzat)

- Bakailaoa (8 zati)
- Piper gorriak (2 pote)
- Piper berdeak (dozena bat)
- Kipula (haundia)

PRESTAKETA

- Bakailaoa 48 orduan uretan beratzen ipini.
- Piper gorriak, berdeak eta kipula txikitu, ontzi batean su motelean ipini eta ondo potxatzen laga, gatza norberaren gustura botaz.
- Barazkiak ondo potxatu ondoren, bakailaoa irin tanta batean busti eta piper artera bota.
- Guztia sutan ipini eta tarteka mugitzen joan, bakailaoa pegatu ez dadin.
- Ondo egin ondoren, mahaira ateratzeko prest. On egin dagizuela!

■ adituen esanetan

D bitaminaren garrantzia

BITTOR RODRIGUEZ, *dietista eta elikagaien teknologoa*

D bitamina oso garrantzitsua da hezurrentzat, hezurrei kaltzio eta fosforo hartzea errazten baitie. Kaltzioaren absorzioan ere parte hartzen du eta berau oso garrantzitsua da muskuluen kontrakzioarako. Beraz, gure gorputzaren estrukturan eta mugimenduetan zerikusi handia dauka. D bitamina abere-jatorriko elikagaietan aurki dezakegu: gibellean, arrainetan, abere lipidoetan (esne osoa, esnegaina...). Era berean, beste elikagai batzuen gehigarri ere izan liteke. Gure gorputzak ere sortu dezake D bitamina apur bat, kolesterola hartuz eta gure azalean jasotzen diren izpi ultramoreen bitartez. Horrega-

tik eguzkia nolabait ona da hezurrendako; eguzkia hartzean, hezurrei on egiten dien D bitamina sortzen dugu.

Bitamina gehigarriak beti medikuarren agindupean hartzea komeni da, bitamina hau gibellean eta gure gorputzeko ehun adiposoan biltzen da eta. Gehiegi hartuz gero, arazoak izan ditezke (giltzurruneko harriak sortuz edo daudenak gaiztotuz, kaltzio gehiegi xurgatzen delako). Bestalde, bitamina honen gabeziak ere arazo larriak ekar ditzake, haurretan "rakitismoa" (ez dira hazten eta hezurren itxura ez da normala) eta nagusietan "osteomalazia" (hezur ahulak). B

■ bergarako gordailutik

KONBENTZIOKO GERRA Imanol Sorondo

Amen ezin ditugu guda baten zergatiak, istiluak eta ondorenak adierazi, baina data batzuk eman bai. Bergarakoak batez ere.

Gipuzkoako lurra babesteko, lehendabizi borrontateko gudariak deitzen zituzten; ondoren, ezkongabeak eta ezkonduak gero.

Konbentzionalek iraultza egin zuten Frantzian, Luis XVI.a erregeari eta Maria Antonieta bere emazteari burua moztu zieten, gizakien eskubideak aurrera ateratzeko asmatan. Geroago, hona etorri eta Gipuzkoaz berehala jabetu ziren.

Hasiera batean, 209 gudari prestatu ziren Bergaran, 50eko taldeak eginez; kapitaina (askotan alkatea bera), tenientea, danbor eta txistu jolea ere prestatu egin behar izaten ziren. Diputaziotik dirua eskatu zuten, 100.000 errealek behar zirela, eta Bergarari 3.746 erreale ordaintzea tokatu zitzaion, bere 86 suen arabera; erropa, oinetako eta buruko bila ere ibili ziren udaletxearen kontura, gudariak itxura batean janzteko, eta emakumezkoak zapi txuri zaharretatik zerrendak egiten ere bai, gudarien zauriak sendatzeko. Gure herriari hogeit galdi, bere idi pareekin eskatu zizkieten, armak Tolosatik Irunera eramateko.

Konbentzionalak Gipuzkoaz berehala jabetzen hasi zirela eta Irimo, Elosu eta Azkarate bitartean milaka gudari kokatu ziren, horietako askoren buru Mendizabaltar Gabriel bergararra zela. Konbentzionalen helburuak hauek ziren: askatasuna, herrien hondatzaileak kentzea eta erregeak bere aulkitik botatea.

Gipuzkoako zinegotziak Getarian batzartu ziren eta konbentzionalei eskari hauek egin zizkieten: erlijioa, foruak eta lege zaharrik errespetatzea eta independentzia. Iparraldera eraman zituzten denak atxilotuta: konbentzionalen askatasuna pertsonari begiratzen zionaren, ez herriari. B

Langileen osasuna zainduz

Ezker Sindikalak antolatuta, eguakitzean lan osasunari buruzko jardunaldia izan zen sindikatuak Arte-kalean duen lokalean. Bertan, Arrasate, Oñati, Elgoibar, Legazpia edota Bergarako 18 enpresatako delegatuak izan ziren eta, **Iñaki Moreno**, Ezker Sindikaleko ingurugiro arduradunaren eskutik, lan istripuekin izaten diren arazoak aztergai izan zituzten goiz osoan zehar. Arautegi berriak segurtasun eta osasun-gaietan baimentzen duen partehartze sindikala ezagutzearekin batera, langileek esperientziak elkartrukatzeko aukera izan zuten. Guztira, 30 lagun izan ziren langileen osasuna zaintzeko antolatutako jardunaldian.



Udaberriko Jai-Kontzertua

Ohiturari jarraituz, Musika Eskolako ikasleek **Udaberriko Jai Kontzertua** eskaini zuten domekan. Udal Pilotalekuan sarrera bikaina izan zen eta ikusleek musikari gazteek egindako lana ezagutzeko aukera izan zuten. **Maite Aurrekoetxea** bilbotarrak zuzentzen duen Orkestra Sinfonikoak bere estrainaldia egin zuen jendeaurrean Vivaldiren "Urtaroak" (Udazkena eta Negua) eta Susatoren "Danserye" lanekin. Era berean, **Maria Jesus Ugalde**ren Akordeoi Orkestak, **Cristina Larrañagak** zuzentzen duen Haurren Abesbatzak edota Gazteen Bandak (**Alberto Laskurainen** batutapean) euren maila erakutsi zuten. Kontzertu amaieran, talde guztiek (150 lagun inguru), kantarien laguntzaz, "Sonrisas y lagrimas" filmeko "The sound of music" alaia interpretatu zuten eta pieza girotzeko tioldar jantzitako neska-mutikoak ere izan ziren bertan. Jai egunari amaiera emateko, Musika Eskolako ikasleek herri bazkaria egin zuten Espoioian.



Osintxuri buelta ederra

Txurrunbilo elkarteak antolatuta, osintxuar talde batek aspaldian agindutako mendi irteera egin zuen joan zen zapatuan. Mendiko botak jantzita, hogeitabost lagun izan ziren Osintxu inguratzen duten mendietatik buelta egitera ausartu ziren mendizaleak. Mekolaldetik Gorlala, handik Elusumendira abiatu ziren eta Pol-Poleko iturrian "errepostatu" ondoren Irukutzetara igo eta bazkaria Aiton-Txaboleta elkartearen egin zuten, bazkalostean Osintxura iritsiz. Guztira, 7 orduko ibilaldia egin zuten osintxuarrek. Argazkian, **Klabelin-Aitzen** ateratako argazkian parte hartu zuen mendizale talde bat.



B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK:** **ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 907 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko al baitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 908 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA:** **IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK:** **ASTIAZARAN SOLOZABALA.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPIUZTARAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 ■ **DERMATOLOGOAK:** **GARCIANDIA Cristina.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOAK:** **LOPEZ DE MUNAIN Francisco.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK:** **ARZAK Miren.** (Reeducacion Postural Global) Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOAK:** **SERRANO DOKTORAKO.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK:** **AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irupe.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 20 50 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOAK:** **BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA:** **OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA:** **IGARTUA Julian.** Barrenkalea 35, 1-ekerra. 943 76 70 91 ■ **PEDAGOGOAK:** **IZETA Maribi.** (Gaitasun psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) Simon Arrieta 3, 2-E. 943 76 26 42 ■ **PODOLOGOAK:** **ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantza.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA:** **GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK:** **FERNANDEZ J.R.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 • **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76 ■ **REUMATOLOGIA:** **MORAGUES Carmen.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 19 zenbakia. 1998ko ekainaren 19a.


San Juanak Uzarragan domekan

San Juan eguna astean denez, Uzarragan ekainaren 21ean, domekan, ospatuko dute udararen etorrera. Urteko gaurik luzeena iritsi aurretik sekulako jaiak antolatu da auzo horretan. Uzarragako jaietan herri bazkaria egingo da eta udal ordezkariak ere hantxe izango dira, aurreko korporazioetako zinegotzietekin bazkaltzen.

Uzarragak garrantzi handia izan du beti Antzuolarentzat. Dirudienez, gure herriko lanbiderik ezagunena, larrugintza, Uzarragako tenplarioek irakatsitakoa da. Baina urteak pasa ahal, Uzarragako jaiak ere jaisten joan dira. Garai batean pleno berezia egiten zen Uzarragan, San Juan egunean. Aurtentzen udal korporazioen arteko desafioa antolatu dute, Uzarraga eta Antzuolako Udalaren arteko harremanana gogoratzeke. Maleta karrera, zaku karrera, soka-tira eta kaskara jokoan aritu beharko dira oraingo udal korporazioa eta aurreko urteetakoak.

Abesbatza, dantzariak eta txirringulak

Madinaren Aita Gurea abestuko du herriko abesbatzak Uzarragako elizan emango den meza nagusian. Abesbatzak meza ostean ere beste zenbait kantu abestuko ditu. Meza goizeko 10:00etan izango da eta ondoren, 11:00etan luntxa eskainiko da, urteroko ohitura ez galtzeko. 11:30etan txirringulak lasterketa hasiko da. Peña Aiastuik antolatuta, herriko txirringulak gazteenak Etxezurin aterako dira Uzarraga gainera igotzeko. Herriko dantzarien saioa egongo da txirringulak gora iritsi bitartean giroa alaitzen. Dantza saioa eguer-



Iaz trikitilariak aritu ziren luntxa alaitzen. JUAN CRUZ ARGAZKIAK

diko 12:30etan izango da. Bazkariaren ostean, 17:00etan hasiko da udal korporazioen arteko desafioa eta 18:00etan, berriz, bergarar eta antzuolaren arteko olinpiada hasiko da. Gazteak antolatu du herriko olinpiada eta Uzarragan jokatu dute, iaz Kalebarren-go jaietan jokatu zuten txapelketaren jarraipena. Arratsaldeko 19:00etan Gezalaga anaia-arreben erromeria hasiko da eta jai giroan jarraitzeko 20:30etan Uza-

rragako jaitsiera egingo da, Gezalagatzen kalejirarekin.

San Juan bezpera

Ekainaren 23an, martitzena, San Juan bezperako dantza eta aureskua egingo dira. Aurretik, arbola jasoko da eta solstizioaren etorrera ospatzeko sua piztuko da. Herriko plazan egingo den ekitaldia 20:00etan hasiko da.

■ ■ ■
17:00etan hasiko da udal korporazioen arteko desafioa eta 18:00etan, berriz, bergarar eta antzuolaren arteko olinpiada hasiko da
■ ■ ■

Antiguako errota

Datorren zapatuan, ekainak 20, Antiguako errota eraberrituta ikusteko aukera izango da. Florentino Lamariano garia eta artoa ehotzeko errota konpontzen dabil 1988tik. Orduan ur-haundiak sekulako kalteak eragin zizkion errotari eta azkenean konpontzea lortu du. Erakustaldia eguerdiko 12:00etan izango da, Antiguan bertan.

Antzuolako Herria beka

Antzuola Herria bekaren III. edizioa larrugintza ikertzeko izango da. Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 30an amaituko da. Bekara aurkeztu nahi dutenek lizentziatuak izan beharko dute eta eskabidean ikerketaren nondik norakoak jaso behar dituzte. Informazio gehiago Antzuolako Udaletxean jaso daiteke.

Pegatina lehiaketa

Idolazek jaietako pegatina lehiaketa antolatu du. Herriko jaietan euskara bultzatuko duen lelo onenaren sariketan parte hartu nahi dutenek ekainaren 30a arte dute lanak aurkezteko epea. Parte hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ditzake. Lanek euskarazko esaldi bat eraman beharko dute, baina horrekin batera marrazkia ere egin daiteke. Lanak lagatzeko lekuak liburutegia eta udaletxea izango dira eta parte hartzaileek sobre itxi batean ipini beharko dituzte euren datuak alde batetik eta pegatinak bestetik.

Pirinioetarako irteera

Gavarnie-Goriz-Perdido irteera antolatu du Arrolak ekainaren 27 eta 28rako. Izena emateko egunak ekainaren 22a, astelehena, eta ekainaren 23a, martitzena, dira, 19:00etatik 20:00etara Arrolaren lokalean.



Sagar dantzan jende askok hartzen du parte. JUAN CRUZ ARGANDOÑA

San Pedrotan jai

Datorren asteburuan ospatuko dira Kalebarrengo jaiak. Suzko zezena, sagar dantza eta asto karrera antolatu ditu Kalebarrengo jai batzordeak.

Ekainaren 26an hasiko dira Kalebarrengo jaiak. Eguakitzean Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoak arituko dira Zurrategin arratsaldeko 18:00etan. Gauean, berriz, Gezalaga anai-arrebak arituko dira erromerian. Gau erdian, suzko zezena aterako da gaua argitzera. Zapatu goizean kirolaren txanda izango da. Peña Aiastuik ginkana antolatu du eta marraztea atsegin dutenek marrazki lehiaketan aritzeko aukera izango dute. Arratsaldean, jaietan falta ezin diren pilota partiduak jokatu dira. Olalde Pilota Elkartek bi norgehiagoka antolatu ditu: Etxabe-Bengoetxea eta Antxia-Gartzaren artekoa eta Ubera-Urberuaga eta Egimendia-Bengoetxea.

Gauean auzokoen txanda izango da, auzo-afariarekin; hala ere herritar guztiei gonbitea egin diete afalosterako.

“Txinparta” taldearen dantzaldia afalostean izango da eta gau erdian urteroko sagar dantza eta Idolazek antolatu duen piropo eta irain lehiaketaren sari bana-keta. Idolazkideek bertso paper lehiaketa irabazi duenaren saria ere orduan banatzeko asmoa dute.

Asto karrera

Garai batean urtero egiten zen asto karrera, baina aspaldian bi urtean behin izaten da. Iaz ez zen egon asto lasterkerarik eta, beraz, domekan, ekainak 28, arratsaldeko 18:00etan egingo da Kalebarrenen asto karrera.

Herri proba barik

Iaz herri probak jokatu ziren Antzuola, Osintxu eta Bergararen artean. Aurtentzen, ordea, Aiherrako jaiak direnez, bertara joango dira Gaztetxeoak, Antzuolan jokatu zuten herri proben itzuliko txapelketa jokatzera.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Mokitak eta tapizatuak •



MUEBLES IGEA

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Koldok hemezortzi urte AKEEn

Berak eta beste bi juntakidek AKE lagatzea erabaki dute

Zenbat urtetan aritu zarete lehen-dakaritzan?

Lehendakari bi urte, baina lanean hemezortzi egin ditut.

Zergatik erabaki duzu Antzuola Kirol Elkarteko lehendakaritza lagatzea?

Denbora asko ibili gara lanean, batzuk zortzi urte, baina nire kasuan hemezortzi eta nekatuta gaude. Jadanik ez daukagu lanerako horrenbesteko gogorik. Orain batzordean zazpi lagun daude eta gure asmoa ez da dena lagatzea. Momentuan nire anaiak, neuk eta beste-eren batek lagako genuke. Hor sartzeko prest dagoen jende berria eskatzen dugu. Hala ere, ez daukagu inoren berri. Eskolarren kirolaz ere arduratzen naiz eta hori ez dut lagako.

Inor aurkitzen ez baduzue, zer egingo duzue?

Jokalarien gurasoak arduratzen izango litzateke egokiena. Bergaran eta Arrasaten horrela eramaten da eta, beraz, ez litzateke ezer berria izango. Hau, noski, umeen mailari dagokionez; zeren preferente mailan, eurak eraman behar-ko lukete.

Zer ikasi duzu tarte horretan?

Gauza asko; Antzuolako ume de-
nak ezagutzen ditut eta pozgarria da ka-
lean guztiak zu agurtzea, oso polita da.

Zer gogoratzen duzu gustoren?

Iaz lehenengo errejional mailara igotzea. Hasi ginenean gure asmoa zen lau talde ateratzea eta laurak daude gaur egun martxan.

Nola ikusten duzu AKE?

Nire ustez aurrera egin de-
zake. Dirulaguntza aldetik nahiko ondo dago, ez da arazorik egoten laguntza lortzeko eta hori oso gar-
rantzitsua da. Falta dena lanera-
ko jende gaztea sartzeta da. Instalazio aldetik, nire ustez, nahiko ondo gaude, behintzat futbol taldeetan.

Zerk ematen du lan gehien?

Entrenamenduetara igotze-
ak. Futboleant jokatu izan dugu urte askotan eta erakusteko mo-
duan ginen, baina orain Federa-
zioan eta eskolar mailan titulu-
du jendea eskatzen dute eta ez

daukagu horrelakorik. Federazioak erraz-
tasunak ematen ditu tituluak lortzeko
baina jendea ez dago gertu 2-3 hilabete
egiteko tituluak lortzeko.



Koldo Madariaga, AKEko lehendakaria.

Euskal presoak Euskal Herrira

Euskal Presoak Euskal Herrira plataformaren aurkezpena egin zen joan den ostiralean. 100 bat lagun elkartu ziren herriko plazan arratsaldeko 20:00etan. Plataformako kideek euren asmoen berri eman ondoren, ekimenaren aldeko sinadurak batu zituzten. Hala ere, eta norbaitek sinadura eman nahi izango balu, martitzenero elkartzen dira plataformako kideak parroki aretoan arratsaldeko 19:00etan.



TXOMIN

garajea

Mekanika orokorra

Lizarragako hiribidea 8 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 77

SURPE

taberna

Girorik
jatorrena!

Herriko plaza 2, Antzuola
Tf. 943 76 64 97

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortozko... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta

bestelako imitazioak.

ANTZUOLA BERGARA
☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98


LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Jesusa Azkarate:

“Santimontxon eta Pedro izeten zien txistularixak”



San Pedro jaiak zuhaitzigoerarekin hasten ziren?

Bezperan ekartzen zan, gabez, eta ipiñi be bai; jendia jaikitzen zanerako ipiñitta egoten zan.

Azkenengo urtetan egunez egitten da, baiña lehen, gerra aurretik, gabaz egitten zan, izkutuan bezela. Arbolia harripatu egitten zan, permiso barik hartzen zan da, eta gabez egin bihar izeten zan. Lora koroia ipintzen jakon goixan, aurretikan neskak eginda eta itxulapikua. Mutil gaztiak ekartzen zeben.

San Juan suaren ondoren, San Pedrotako suaren txanda izaten zen?

Azkenengotan erreka baztarrian egitten zan, Zurrategi aldera. Lehen erreka zabala zan. Toki asko etzeguan salto egitteko baiña baten batzuk ibiltzen zian. Erretzen zan dana jasotzen zeben mutil gaztiak aurreko egunetan.

Mezarik ematen zen auzoan?

Urten batzutan, bi urtetan edo, plazuelan, baiña, parrokixan emoten zan. San Bartolomen hasi zan 1940xan mezia emoten, ur-haundixak egon zien urte horretan agostuan eta elizia garbitzen ibilli giñanok esan giñuan meza bat emon bihar zala han, eskerrak emoten ezebe etzalako pasau eta orduan hasi zan mezia emoten han. Baiña San Bartolome egunian emoten zan bakarrik.

Berbenarik egiten zen?

Dantza asko etzan egoten: trikitixa, pasodobliak, habanerak eta beste pieza batzuk... Neure denporetan Santimontxon eta Pedro izeten zien txistularixak. Bezperan danborra eta dulzaiñia izeten

zian berbenia. San Pedro egunian, filarmonista bat eta pandeua be etortzen zian, kanpotik. Antzuolan be bazian musikua, Bazterretxeko Alejandro be ibiltzen zan joten eta Iraustako Benitok dulzaiñia jotzen zeban. Jaixetara kanpotik jende asko etortzen zan, oin baiño gehixago. Batzuk oiñez eta beste batzuk bizikletan etortzen zian.

Eta San Pedro egunean?

Atsaldian jokuak egitten zian: kaskara jokua, zaku karrera eta asto karrera. Eta beste bat izeten zan maleta karrera; oin ezta ikusten hori baiña lehen asko egitten zan. Maleta bat erropaz beteta ipintzen jakon baikoitzari eta gero zeini tokatzen jakon, harek biaje baikoitzian erropa bat jazten zeban eta zein bizkorren eta onduen jazten zan, harek irabazten zeban.

Maleta karrera askotan egitten zan eta oin ezta ikusten hori. Zaku karrera be... oin zakua billatzia be kosta egingo litzake.

Asto asko egoten ziren asto karran?

Dozenaren bat lagun ibiltzen zian. Enaiz akordatzen zeinek irabazten zebanik, baiña Akiño neska batek lehenengo premixua irabazi zeban urte baten. Harrezkero be ibilli zan baiña orduan ezban irabazi.

San Pedrotan izaten zen lorontzien lapurretan?

Iñun baldin bazeguan bentanetan, jendia barrura sartzen ibiltzen zan. Karpuan gelditzen baldin bazan, toki batetik bestera aldatu eta hola ibiltzen zian ties-tuak. Oindio be San Pedro bezperan barrura sartzen ibiltzen gara... akordatzen baldin bada baten bat...



Jesusa Kalebarrenen bizi da oraindik.

“Arbolia bezperan ekartzen zan... eta jendia jaikitzen zanerako ipiñitta egoten zan”

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

LEKU-BERRI
MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

zabalo

IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

Egino Mallea berriztear

XVI. mendeko etxe egoera txarrean dago

Udal Gobernu Batzordeak, joan zen apirilaren 27ko bileran, Egino-Mallea etxean berrizte lanak egiteko jabeei exekuzio-agindua luzatzea erabaki zuen. Udalak aspalditik zeukan obra horiek egiteko asmoa, baina kanpoan bizi den eraikuntzako jabeetako batekin izandako desadostasunak zirela medio, exekuzio-agindua luzatu behar izan du obrak egin ahal izateko.

Egino-Mallea etxea XVI. mendeko eraikuntza da eta monumentu kalifikatua da, Euskal Kultur Ondareari buruzko legearen maila eta babes handiena duelarik. Andres Garcia Egino eta Marina Lopez Mailearen eraginez eraiki zen XVI. mendean eta berpizkunde garaiko fatxada bikainenetakoa dauka, hainbat arte liburutun jasotzen denez. Luis Laskurain bergararra Deba Garaiko ondare artistikoa zaintzeaz arduratzen den Mankomunitateko Suradesa elkarteko teknikoa da. Bere hitzetan, "balio artistiko handiena duen eraikuntza da eta Gipuzkoan ez dago horrelako beste fatxadarik. Baina, zoritxarrez, oso azkar hondatzen ari da eta ezinbestekoa da berrizte lanak lehenbailehen egitea".

Atzeratutako proiektua

Xabier Aranburu udal museologoa, 1996ko irailean egindako txostenean, etxearen egoera txarra eta Egino-Mallearen balio artistikoa jasotzen zen jadanik eta ordutik jabeen eta Udalaren artean elkarrizketak izan dira obraren exekuzioa zehazteko. Hasiara batean





etxeke jabeak (gaur egun lau dira Eginno-Mallea etxearen jabeak) ez zeuden ados obren zati bat ordaindu behar izatearekin, baina guztiek (kanpoan bizi den jabeetako batek izan ezik) obrak egiteko adostasuna eman dute azkenean. Luis Laskurainek adierazi digunez, "etxean bizi direnak ados azaldu dira Udalak egindako planteamenduarekin, azken batean eurak direlako edifizioaren erantzule. Baina Bergaratik kanpo bizi eta eraikuntzaren zatirik handienaren jabe denak [beheko solairua eta lehen pisuko etxe bat salgai dituen hain zuzen ere], ez du ezer jakin nahi izan

Berrizte lanak etxearen lau aldeetan egingo dira eta aurrekontua 10 milioi pezeta ingurukoa izango da. Erakunde publikoek obrak egiteko laguntza emango dute

eta horregatik atzeratu da hainbeste obren exekuzioa. Oraindik ere ez du bere oniritzia eman eta Udalak obrak egiteko agindua eman behar izan du. Exekuzio agindua emateak pausu administratibo batzuk betetzea eskatzen du eta kontu hau guk nahi baino gehiago luzatu da azkenean".

Balore handiko fatxada

Eginno-Mallearen balio artistikoa eta eraikuntzaren egoera txarra kontutan izanik, Udalak obrak egiteko erabakia hartu zuen eta Udala bera izango da ziurrenik obra subsidiarioa egingo duena. Diputazioko Kultura eta Euskara departamentuak obrak egiteko baimena eman du jadanik eta, esan bezala, agindutako epean jabeek beraiek burutzen ez badute, Udalak egingo ditu beregokitze lanak. Ondoren, behin lanak amaitu eta gero, dagozkien portzentaiak kobratuko zaizkie jabeek.

Berrizte-lanak eraikuntzaren lau aldeetan egingo dira eta aurrekontua hasiera batean 10 milioi pezeta ingurukoa izango da. Kopuru honen zati bat erakunde publikoek finantziatuko dute; hain zuzen ere, Gipuzkoako Diputaziok 3 milioi pezetako laguntza emango du eta Bergarako Udalak ere diru ko-

Berpizkunde garaiko fatxada bikaina

Maria Jose Aranburuk eta Jesus Gil Massak idatzitako "Artea Bergaran Erdi eta Moderno Aroak" liburuan jasotzen denez, hainbat sute eta bestelako gertakizunen ondoren, Eginno-Malleak, historian zehar aldaketa ugari izan ditu. Garrantzitsuena 1743an gertatu zen, teilatuak berreraiki zirenean hain zuzen. Ondorioz, etxeak bere nortasunaren atal bat galdu zuen, erlaiza eta errematearekin gertatu bezala. Hala ere, Eginno-Malleak ez du balio artistikorik galdu eta gaur egun Bergarak oporretan jasotzen dituen bisitariarentzat derrigorrezko bisita puntua bihurtu da. Arte adituen arabera, berpizkunde garaiko fatxada nagusia, apaingarri gutxikoa izan arren, guztiz aberatsa da eta bakarrik Bergarako Zabala etxean eta Elorrioko beste etxe batean aurki daitezke hain sarrera dotoreak. Kanpoaldean ez dauka harmarririk eta azpimarragarriena, beharbada, fatxadaren erdiko portada litzateke. Hiru solairu dituen etxe honek, behe-plantan puntadun arkua dauka, oso landua, ateburua eta janbak edertzen dituen. Atarirako sarrerak, alboetan, joniko erako bina zutabe ditu eta lehen solairuko aldeak, berriz, korintiar tankerako bi-

na zutabe erakusten ditu. Era berean, bigarren solairuko erdiko balkoia (pilastrekin enmarkatua) eta fatxadan diren gainontzekoak (mentsula artistikoetan oinarritutakoak) oletan landutakoak dira. Eginno-Malleakoa 1570. urte inguruan egindako fatxada manierista bikaina da, garai hartan Bergaran nagusi zen tradizionalismoarekin kontraste handia sortzen duena. 1990ean Euskal Kultur Ondareari buruzko legea onartu zenean, Jaurlaritzako Kultura Sailak euskal ondasun kulturalen inbentarioa egiteari ekin zion, ondasun horiek babesteko arauak zehaztuz. Eginno-Malleak duen balioa frogatzeko, Jaurlaritzak egindako sailkapenean kalifikazio gorena jaso zuen. Orain, duen balioa babesteko, berrizte lanei ekitea erabaki da. **B**



puru bat bideratuko du obrak egin ahal izateko. Oraindik obrak hasteko fetxarrik zehaztu ez den arren, Luis Laskurainen adierazi digunez, "gure asmoak betetzen badira, baliteke lanak abuztua baino lehen hastea, nahiz eta oraindik legeak agintzen duen prozedura guztia amaitu ez den". Berrizte-lanen iraupe-na 40 bat egunekoa izango dela aurreikusitua da. Lojikoaren denez, lan garrantzitsuena etxearen fatxadan egingo dira eta horrelako lanetan esperientzia handia duen Eduard Guillament berriztaztailearen partaidetza lortu nahi dute. Hala ere, Udalak ez ditu baldintza ple-guak onartu oraindik. Hauek onartu eta lehiaketa deitu ondoren, lanak adjudikatuko dira.

Errestaurazio zientifikoa

Arestian aipatu bezala, arreta gehien Egin-Mallearen fatxadari, ekialdera ematen duen aldeari eskainiko zaio. Luis Laskurainen arabera, "esperientzia handiko teknikoek hartuko dute parte berrizte lanetan, eta aurrealdean errestaurazio zientifikoa egingo dela esan genezake. Piezak berrizteko orduan irizpide zientifikoak erabiliko dira, teknika aurreratuenak aplikatuz". Bertan, besteak beste, erortzeko arriskuan dauden zati guztiak kontsolidatzeko lanak egingo dira eta konposizio geologikoa eta denboran zehar izandako aldaketan zergatiak argitzeko muestrak hartuko dira. Era berean, gune landu zein lauetan garbiketa orokorra egingo da, metodo urratzailerik erabilteke. Horrela, azaleko hautsa eta usoen zirinak garbitzeko, esate baterako, bitarteko mekanikoak eta zurgagailua erabiliko dituzte bakarrik. Bestalde, kraka beltza sendoago dagoen lekuetan, zelulosa neutrozko pastazko konpresak erabiliko dira garbiketa egiteko, amonio-karbonatoz bustita. Beti ere,

XVI. meneko eraikuntzak Euskal Kultur Ondareari buruzko legearen maila eta babes handiena dauka. Bere balioa mantentzeko berrizte lanekin hastea erabaki da



1996an egindako txostenean, etxearen egoera txarra jasotzen zen jadanik. Azkenaldian, zoritxarrez, eraikuntza asko hondatzen ari da. Alboko argazkian, higadurak sarreran eragindako kalteak ikus daitezke.

MUJIKA
Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91



AGOITZ
Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47


SUBIJATI

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

I P I N T Z A K O

futbol txapelketa



partiduak

NESKAK

Eguaztena 24

- 19:15: Baleike-Las Rascamantas
20:30: Potzu Ta Zapaburuak-Gamma Rai
20:30: Biko Bokategia-Eztaki

MUTILAK

Eguakitza 19

- 19:15: KIB-Manitou
20:30: Etengabe-Shaktale

Astelehena 22

- 19:15: Amilotx-Facuta
20:30: Fo Fo Fo-Mongatxurak

Martitzena 23

- 19:15: La Beccia Kukuxumuxu-Game Over
20:30: Bildurbarek Opel/Lam-Osintxu

Eguena 25

- 19:15: Altos Pornos-Gu Geu
20:30: Xurruapak-Insert Koin

emaitzak

NESKAK

Las Rascamantas-Azkenak	4-3
Gamma Rai-Eztaki	7-0
Potzu Ta Zapaburuak-Biko Bokategia	2-1

MUTILAK

Shaktale-Manitou	2-4
Angiozar-Etengabe	8-1
Mongatxurak-Facuta	7-2
La Juve-Fo Fo Fo	3-1
Osintxu-Game Over	1-2
Gu Geu-Bildurbarek Opel/Lam	0-7
La Beccia Kukuxumuxu-Altos Pornos	0-0
A Ze Flaxa/La Guipuzcoana-Insert Koin	0-0


nesken futbitoa

Domeka 21

- 16:30: Potzu Ta Zapaburuak-Gu Geu
17:30: Nifis-The Road Island

Astebukaera honetan final erdiak eta hurrengoan finalak jokatu dira. Liga erregularrean honela sailkatu dira lau lehenengoak: Gu Geu (32 puntu), Nifis (28), The Road Island (26), Potzu Ta Zapaburuak (25).

jokoz kanpo



Unai Mujika
GU GEU

G. Zer iruditzen zaizu aurten neskei jokatzeko aukera ematea?
E. Jokatu nahi badute, aukera ematea ondo iruditzen zait.

G. Bergarako neskek zer nolako maila dutela uste duzu?
E. Ez dut partidurik ikusi.

G. Zer da zure taldeko gauzarik txarrena?
E. Giroa. Aspaldiko lagunak gara, koadrilla berekoak izan ez arren.

G. Labegarrietako txapelketan ibili zara?
E. Ez. Baina taldekide asko izan dira bertan.

G. Nola zabiltzate?
E. Partidu bakarra jokatu dugu eta berdindu egin genuen.

G. Zein da faborittoa zure ustez?
E. Bildurbarek Opel/Lam, KIB eta Manitou.

G. Nola gelditzea espero duzue?
E. Ez gara oso onak, baina borrokatzeko prest gaude.

G. Mundiala jarraitzen duzu?
E. Bai.

G. Zer iruditzi zitzaizun Espainia-Nigeria partidua?
E. Espainiak berdinketa lortzeko meritua egin zituela uste dut.

G. Javier Clementeren aldekoa ala kontrakoa zara?
E. Aldekoa.

golegileak

NESKAK

Kadeteak

1. Rachel Olabarria Baleike 5 gol
2. Rebecca Fernandez Azkenak 2 gol

Nagusiak

1. Naiara Beistegi Gamma Rai 3 gol
2. Eva Alzas Biko Bokategia 3 gol

MUTILAK

1. Gorka San Vicente Osintxu 6 gol
2. Juan Luis Etxaniz Bildurbarek Opel/Lam 5 gol
3. Iban Etxeberria Mongatxurak 4 gol

sailkapenak

A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Manitou	6	2	9	5
2. Angiozar	3	2	11	6
3. KIB	3	2	4	8
4. Etengabe	0	1	1	8
5. Shaktale	0	2	3	7

B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurak	6	2	9	2
2. Facuta	3	2	5	9
3. La Juve	3	2	5	4
4. Amilotx	0	1	0	2
5. Fo Fo Fo	0	1	3	1

C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Bildurbarek Opel/Lam	6	2	12	3
2. Game Over	4	2	4	3
3. Osintxu	3	2	8	3
4. Altos Pornos	1	2	7	9
5. La Beccia Kukuxumuxu	1	2	5	11
6. Gu Geu	1	2	2	9

D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Insert Koin	4	2	4	1
2. Matxakategi	3	1	2	1
3. Xurruapak	3	1	2	1
4. A Ze Flaxa/La Guipuzcoana	1	2	2	3
5. Arloteak/Oilagorra	0	1	1	2
6. Ezinleike	0	1	0	3

Neskek, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Baleike	3	1	5	0
2. Las Rascamantas	3	1	4	3
3. Azkenak	0	2	3	9

Neskek, nagusiak

	P	J	GA	GK
1. Potzu ta Zapaburuak	6	2	5	2
2. Gamma Rai	4	2	10	3
3. Biko Bokategia	1	2	4	5
4. Eztaki	0	2	1	10

argi

Antolaketa Batzordea oso arduratuta dago, txapelketa hasi eta bi aste bakarrik pasa direnean, lesionatutako jokalariek asko dagoelako. Sarrera gogor samarrak izusi ei dira eta horrek kezka eragin du. Ea hurrengo partiduetan inork minik hartzen ez duen.

Frantziatik zuzenean



AGUSTIN ARANZABAL, selekzioaren kontzentrazioetik



AGUSTIN ARANZABAL
Chantilly, Frantzia

Mundialean hasiera eskasa izan arren, gaurko partiduari begira oso animatuta eta moral aldetik indartsu gaude. Kazetari askok Zubiren errua nabarmendu du, dagoeneko zuetako askok irakurri eta entzungo zenuten bezala, baina Espainiak partidu polita egin zuela uste dut, nahiz eta akats garrantzitsu batzuk izan. Dena dela, ez nago ados egunkari batzuetan idatzi denarekin. "Marca" eta "As" egunkariak, esaterako, taldeari buruzko irudi eskasa azaldu dute. Ez genuen tratu hori merezi. Horrelako egoeretan, taldeak animoak behar ditu eta badirudi bat baino gehiago kontra egitera gerturatu dela hona. Eta ez da Zubi bakarrik izan, Iban Campok ere sekulakoak entzun behar izan ditu eta. Kazetarien artean, giro nahasia dagoela nabari da baina guk gero eta kasu gutxiago egiten diegu kazetariak esan eta idatzitakoei. Askotan, egunkariak irakurtzea ez du merezi.

Partidu ostean, Mutiurekin izan nintzen. Kamisetak elkar trukatu eta parti-

Nigeriaren aurkako partidua galdu eta gero, Clementeren taldeak partidu erabakiorra jokatuko du gaur, eguakitza, gauean. Debutean izandako porrotaren ostean, jasotako kritiken inguruan jardun digu oraingoan Aranzabalek.

dua gainera komentatu genuen. Normala den moduan, bera ni baino alaiago zegoen. Dena dela, zorte ona opa genion elkarri. Ondoren, aireportura joateko autobusa hartu eta hotelera itzuli ginen. Hurrengo egunean, Clementerekin bildu eta bezperan gertatutakoa komentatu genuen. Berak adierazi zigenez, gustora zegoen taldeak egindako jokoarekin. Izandako akatsak aztertzeo aukera ere izan genuen.

Domekan, jai eguna aprobeztatuz, irteera txiki bat egin eta Paris bisitatu genuen. Frantziako hiriburuko kaleetan ibili, pare bat "pote" hartu -beti ere entrenatzailearen baimenarekin- eta hotelera bueltatzean, golfa praktikatu

genuen; hurrengo egunean, entrenatzera. Jokalari batzuek, gaua hotelean igaro zuten.

Clementek Paraguayren kontrako partiduari buruz ezer esan ez badigu ere, entrenamenduetan ikusitakoaren arabera aldaketak izango dira bigarren partidu honetarako. Hala eta guztiz, ez dut uste jokatzeo aukera emango didanik. Mundialean debutatu barik etxera bueltatzerik ez nuke nahi, baina gauzak nola dauden ikusita, oraingoz, zaila ikusten dut jokatzea.

Nigeriarekin gertatu zen bezala, Paraguayri buruzko bideoak eta jokoak aztertzen aritu gara azken egunotan. Partidua irabazteko aukera, argiago ikusten dut. Ez dut esan nahi Paraguay talde txarra denik, baina Nigeriak maila hobea dauka.

Domeka honetan ere jai izango dugu. Ikusi beharko da nolako animoak dauden. Jokalari batzuen emazte eta familiakoak Frantziara gerturatuko dira. Zoritxarrez, nire senideek ez dute hemen egoteko aukerarik izango. Nigeriako partidua jokatu baino lehen, gurasoekin izan nintzen eta ordu laurden bakarrik izan bazen ere, izugarri esker-tu nituen aitak emandako animoak.

Esan bezala, oso giro ona dago jokalarien artean eta partidua irabaziko dugulakoan gaude; hori da garrantzitsua. B

"Marca eta As egunkariak taldeari buruzko irudi eskasa azaldu dute. Ez genuen tratu hori merezi. Horrelako egoeretan, taldeak animoak behar ditu"

Aprobeztatuz oporrak
GIDA BAIMENA
ateratzeko

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Izena ematean
%10EKO BEHERAPENA
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

Jesus Mari Garcia, kulturista:

“Olimpia txapelketan bigarren geratzea haundia izan da”

Jesus Mari Garcia duela 12 urte hasi zen kulturismoan. Lehendabiziko aldiz, Olimpia izeneko estatu mailako txapelketa ospetsuenean aurkeztu zen eta bigarren postua eskuratu zuen.

G. Zela joan zen txapelketa?

E. Aurtan hiru txapelketatan aritu naiz. Hasierako helburu nagusia, joan zen igandean jokatu zen iparraldeko txapelketarako prestatzea izan zen, baina fisikoa aprobetxatuz, estatu mailakora joatea pentsatu nuen. Gauzak ondo atera dira eta bi txapelketetan 2. postua lortu dut. Euskadikoan ere izan nintzen. Kasu honetan, pisu gehiagoko jendearekin lehiatu nintzen eta, hala eta guztiz, 4. postuan sailkatu nintzen. Oso pozik nago lortutako emaitzekin.

G. Beste txapelketaren batean parte hartzeko asmorik?

E. Sei hilabete egin ditut prestaketa lanetan eta dagoeneko heldu da atsedendaldi txiki bat hartzeko ordua.



Jesus Mari Garcia bergararra Olimpia txapelketako erakustaldi batean.

Bestalde, atsedendaliaren ondoren eta, beti ere, entrenatzeari uzteke, datozen bi urteetan Espainiako txapelketara begira entrenatuko dut. Txapelketa bakarrera aurkeztuko naiz.

G. Noraino heldu nahi zenuke?

E. Estatu mailako txapelketan lehen postua eskuratzeko duenak selekzioan izateko aukera izaten du. Honek, bai Europara eta bai

kanpora begira jartzen zaizu eta kulturismoa aurki kirol olinpikoa bihur litekeela kontutan hartuz, olimpiada edo nazioarteko txapelketa batean izan nahi nuke.

G. Zer suposatu du zuretzat estatu mailako 2. postuak?

E. Jendeak 2. postu batek ez duela esaten gauza haundirik pentsa dezake, baina Bergarako bat estatu osoko kulturista hoberenekin lehiatzeak, pertsonalki batez ere, asko suposatzen du. Normalean, hiriburuetako jendeak aukera eta abantaila handiagoak izaten ditu.

G. Kulturismoak adin mugarik badu?

E. Ez. Dagoeneko 60-65 urte dituzten kulturista asko ari dira lehiaketetan. Bestalde, kulturismoa lagatzea erabakitzen denean, ez da jendeak pentsatzen duena gertatzen. Gorputzak ez du inolako aldaketa arrarorik izaten. Bat-batean asko jaten hasten baldin bada, normalean da gizentzea. Hori edonoiz gerta daiteke. Jende asko oso oker dago beren inguruan. B

Manitou Kopako txapelkun zapatuan irabazi ondoren

Joan zen zapatuan, La-bergarrietako Futbito Txapelketako Kopako finala jokatu zen Manitou eta Mongatxurak taldeen artean. Badirudi Mongatxurak taldeak ez duela zorte handi-

rik azken aldian. Mongatxurak-ekoak, bi final jokatze-rra heldu dira, play-off eta Kopakoa eta biak galdu dituzte. Oraingoan Manitou taldeak hartu zion aurre 2-3 emaitzarekin. B

Gimnasia Erritmikoko VII. Pentekoste Saria

Domekan, Gimnasia Erritmikoko VII. Pentekoste Saria jokatuko da Udal Pilotalekuan. Infantil, junior, junior eta senior mailakoek, goizeko 11.00etan emango diote hasiera txapelketari.

Bergarako Ariznoa taldeak gain, Kantabria, Gasteizko Aurrera eta Oskitxo, Iruriko Anaitasuna, Donostia, Eibarko Ipurua eta Leizoko Sakoneka taldeak izango dira bertan. B

Karate-Shotokan taldeak maila ona erakutsi du

Bergarako Karate-Shotokan taldea, denboraldiaren amaierara heldu da hainbat txapelketatan izan ondoren. Hona azken lorpenak:

Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan, Aitor Delariberete eta Mikel Arakistainek, 2. eta 4. postua eskuratu zuten. Bestalde, Eibarren izandako Gipuzkoa mailako eskolarretan, Oier Tolak hirugarren, Markel Larrañagak laugarren eta Unai Zabartek bosgarren postuan sailkatu ziren. Bergara Hiriko Lehen

Txapelketa Eskolarrean, Markel lehenbizikoa, Oier bigarren eta Unai laugarrena izan ziren. Eibarren izandakoan, Markel bigarren, Oier hirugarren eta Unai laugarren eta Herrien arteko Txapelketan, Markel bigarren, Oier hirugarren eta Unai laugarren sailkatu ziren.

Bestalde, Pablo Perak 3. postua lortu zuen Euskadiko selekzioarekin eta Azkoitian izan zen klub arteko txapelketan, Bergarako taldea 2. sailkatu zen. B



Shotokan taldeak irailean ekingo dio denboraldiari.

San Antonioko lasterketa

Zapatuan, lau eta erdiak inguruan eman zitzaion hasiera San Antonioko jaietako txirrindulari lasterketari. San Antonioko aldatatik, 98 txirrindulari inguru abiatu ziren 84 km egitera. Lasterketako txapeldua Mutriku taldeko, Iñigo Lazkano mendararra izan zen. Bergarako lehena, Igoitz Gabilondo izan zen, seigarren heldu zelarik. B




Txirrindulariak, zapatuan jokatu zen lasterketako irteeran.

Otaba jaietako pilota emaitzak

Joan den astean, Otaba jaietan izandako pilota jaialdiko emaitzak hauek dira: eskolarretan, Eneko Muguza eta Gotzon Lizarralde 18-11 irabazi zieten Joseba eta Julen Muguza. Jubenil mailan eta banakakoan, Ander Muguza, 18-11 irabazi zion Mikel Azpiazuri. B

Realak Imanol Cabanillas fitxatu du



Imanol Cabanillasek joan zen zapatuan debutatu zuen Realarekin.

Joan den martitzenean, gaztetxo askok espero duten deia jaso zuen Imanol Cabanillas 13 urteko gazte bergararrak. Behe mailako taldeez arduratzen den Lasak deitu zion Realarekin fitxatzeko eskaintza eginez.

Imanolek, larunbatean debutatu zuen Realarekin eta egun gutxi barru, Tuteran jokatuko den txapelketan izango da. Bertara, Madril eta Bartzelona taldeak gerturatuko dira. Aurrealdean jokatzen du.

Denontzako VI. Kirol Jaia

Deba Garaiko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako Denontzako kirol Jaian, kirol ezberdinak egiteko aukera egon zen; boccia, boleyballa, hockeya, boloak, aerobica, e.a. Guztira, 75 partaide gerturatu ziren. Kirolez gortatzeko aukera, merienda eta dantzaldia izan zuten bildutakoek. B

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisua salgai S. Pedron.
943 76 52 72.

Pisua salgai Deban.
943 19 18 40
(Mari Karmen).

Barrenkalean aparta-
mentua. 943 76 56 41.

Etxea salgai Osintxun.
Erdi-amueblatua.
943 76 49 74.

Pisua salgai San Anto-
nion. Deitu 943 76 56 20
telefonora.

Pisua salgai Mekolal-
den. 943 76 05 79.

Pisua salgai Antzuolan.
Amueblatua.
943 76 62 52.

Erosi

Erreformatik gabeko
pisua erosi nahi dut.
943 76 30 57.

Errentan emateko

Pisua alokairuan
Alcoceber-en, udan.
943 76 12 14.

Pisua alokairuan
Laredon, udan.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen.
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/
MOTOAK**

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuk
Deiak
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai edo alo-
kairuan Masterrekan.
150m². 943 76 11 88.

A. Flemingin.
943 76 00 84/35 83.

Lokal komertziala salgai.
Martokoan. 943 76 25 57.

Taberna bat salgai edo
alokairuan Antzuolan.
943 76 60 16.

Errentan emateko

Lokala alokairuan.
943 76 35 09.

943 76 13 86 (gauzez).

Zumaian, abuztuan.
943 86 12 24.

San Martin plaza.
943 76 21 77.

Estudioa Benidorm-en.
943 76 23 43.

Errentan hartzeko

Pisua hartuko nuke
alokairuan.
943 76 72 00 (Joana).

Pisua alokatu nahi dut.
943 76 30 57.

Pisua edo logela aloka-
tuko nuke uztailetik
aurrera. 943 74 44 44
(lanorduetan).

Pisua hartuko nuke.
943 76 32 57 (David)

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea salgai
Torrekuan. 2 plaza.
943 76 28 24.

Salgai Burdiñaten.
943 76 40 74.

Aranerreka (2 plaza
ixtita). 943 76 06 96.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Masterreka. 943 76 2457.

Salgai. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Bolu. 943 76 51 54.

Garaje bikoitza S. Lo-
rentzon. 943 76 58 00.

San Antonio.
943 76 15 37.

Errentan emateko

Garajea alokairuan
Bolun. Deitu
943 76 55 26 telefonora.

Garajea alokairuan
Poligonoan. Deitu
943 76 32 58 telefonora.

Errentan hartzeko

Garajea/ganbara
alokatuko genuke.
943 76 50 00.

Garajea alokatuko
nuke. Telefonoa:
943 76 05 17.

4. LANA

Eskaintzak

Zaharrak zaindu edo
etxeko garbiketarak egin-
go nituzke. 943 76 00 80.

Kliniko laguntzaileak
gaisoak/helduak zain-
tzen ditu. 943 76 64 47.

Neska orduka lan egin-
go luke. 939 47 25 84.

Haurrak zainduko
nituzke. 943 76 04 34.

Neska euskaldun batek

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78

EDEL
TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan
aukerarik haundiena
eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar
baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik
egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

ARREGUI, E.M.

ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 943 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

**Jantxidenda batean
lan egiteko
neska behar da.**

Bidali lehenbailehen datu
pertsonalak eta argazki
berri bat honako helbidera:

**181 posta kutxa
20570 BERGARA**

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia

**Ibargarai 2
943 6 51 65**

haurrak zainduko nituzke. 943 76 56 92.

Dendan, etxeko lanetan edo zaharrak zaintzen lan egingo nuke. 943 75 17 43.

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. Esperimentzia. Deitu 943 76 03 76 telefonora (Maite).

Uztailen zehar umeak zainduko nituzke. 943 76 07 50 (gauetz).

Etxeko lanak egin edo haurrak edo zaharrak zainduko nituzke. 943 76 29 14 (Ana).

Eskaerak

Antzuolan pertsona bat behar da umeak zaintzeko irailetik aurrera. 943 76 65 00.

Antzuolan neska behar da uztailen eta abuztuan etxeko lanak egin eta haurra zaintzeko. 943 76 63 41.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

OHO klaseak ematen dira Antzuolan. 943 78 71 32.

Ingeles klaseak. 943 76 53 88 (Rosa).

Ingeles klaseak uztailen (goizez). 943 76 17 18 (Jesus).

Mate klaseak. 943 76 03 72 (Nerea).

Majisteritzako ikasleak OHoko klaseak ematen ditu. 943 76 47 30 (Aitziber).

Fisika, informatika eta mate. 943 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak ematen dira. 943 76 25 79.

Majisteritzako ikasleak OHoko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arteko klaseak. Udan. 943 76 32 93.

Ingenieritza ikasleak mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. 943 76 59 15 (Amaia).

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klaseak. Uztaila eta abuztua. 943 76 24 31.

Eskaerak

Ekonometriako klaseak

hartuko nituzke. 943 76 26 82 (gauetz).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Ford Sierra (SS-S). 943 76 18 28.

Peugeot 205 kotxe gorria salgai. 943 76 21 70 (Ander).

Roller jet karabana. 5 plaza. 943 76 44 05.

Peugeot 309 SR automobila salgai. 100.000 Km. 943 76 14 64 telefonora.

Seat Ibiza (BI-BF), diesela. 943 76 09 12.

Opel Kadett (SS-AC) salgai. 943 76 16 31.

Golf GTI (SS-AH). 16 balbula. 943 76 33 26.

Kawasaki GPX 600 R motorra. 943 76 09 17.

Remolkea salgai. 1,10x1x60 neurriak. Poliesterreko tapa, ia berria. 943 76 37 87.

Erosi

Remolkea (2 m.ko kajaduna) erosiko nuke. 943 73 19 60.

7. ANIMALIAK

Oparitu

Txakurkumeak oparitzen ditut (ama artzain txakurra). 943 76 12 93.

8. DENETARIK

Saldu

Motorrean ibiltzeko emakumezkoaren goretex BMW traje berria salgai. Deitu 943 76 09 17 telefonora.

Orbea Sherpa bizikleta salgai. 943 76 52 76.


Galdu

Bergarako jaietan Euskadiko selekzioaren txandalaren goiko aldeko galdu nuen Simon Arrietan. Deitu 943 76 04 22 telefonora.

9. HARREMANAK

Kontaktua

33 urtetik beherako mutil batekin harremanak izango nituzke. Idatzi 91 PK zenbakira, 20560 Oñati. Xabi. Erabateko zuhurtasuna.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

MUNTAIETARAKO PLOI BAT
Deba Garaia. 10018/0

6 PIEZA-MUNTATZAILA
Deba Garaia. 10021/0

PLADUR ETA ESKAIOLA LANETARAKO 2 LAGUNTZAILA
Deba Garaia. 9943/0

2 GALDARAGILE-SOLDADORE
Urola erdia. 9225/1

TORNULARIA
Urola erdia. 7510/4

2 GALDARAGILE
Goierri. 8668/1

AUTOEN MEKANIKARIA
Bidaxoa Behea. 8843/3

DIAGNOSTIKORAKO IRUDIAN ADITUA DEN IRAKASLEA
Tolosa. 9593/1

ZENBAKIZKO KONTROLEKO TORNULARIA
Andoain. 9957/2

FORMAZIO TEKNIKARIA
Donostia. 9938/0

TEKNIKARI KOMERTZIAL LAGUNTZAILEA
Bidaxoa Behea. 9886/0

SUKALDARIA
Bilbo. 9145/3

TEKNIKARI KOMERTZIALA
Gipuzkoa. 9145/3

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Gutxi gorabehera 7 hilabeterako ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA kontratatu behar da Hiltegirako

Instantziak eta dokumentazio osagarria **EKAINAREN 26ko 15:00ak**

BAINO LEHEN Deba Garaiko Mankomunitatean aurkeztu beharko dira:

Arrasate pasealekua 5, behe. **ARRASATE.** Tf. 943 79 33 89 / 99.




Ingeles ikastaro trinkoak

ekainak 29 - uztailak 24

- ▶ MAILA GUZTIAK
- ▶ ESPERIENTZIA HAUNDIKO BERTAKO IRAKASLEAK

Informazioa:

Ibargarai 31, barruko plaza. BERGARA. Telefonoa eta faxa: 943 76 03 53.



BOLINTXO ZURRADERO

Adi! Adi! Adi!

Saloura bidaia bat zozketa-tuko dugu 98-6-30ean: Astebetekoa - 2 lagunendako - 3*** hotela - Pentsio osoa - Port Auenturarako 2 sarrera.

Zurradero 2, behe. Tf. 943 76 01 26

PUBLIZITATE SALTZAILEA

BEHAR DA JARDUN ELKARTEAREN PROIEKTU BEREZI BAT BULTZATZEKO.

Bidal Curriculum-a ekainaren 22a baino lehen.

JARDUN Elkarteak Kartzela Zaharra 20570 BERGARA Tf. 943 76 08 19 F. 943 76 2 9 77



Bergarako Orfeoiak kontzertu berezia eskainiko du datorren zapatuan Udal Pilotalekuan

Aita Donostia kamara orkestarekin, ikasturte amaierako emanaldian

Bergarako Orfeoiak kontzertua emango du datorren zapatuan, hilak 27, gaueko 22:00etan Udal Pilotalekuan. Sasoi honetan, San Pedro inguruan, urtero eskaintzen du emanaldia baina aurtengoa berezia izango da; goi mailako musikarien laguntza izango du eta.

Bergarako Orfeoiarekin batera, Aita Donostia kamara orkesta eta hainbat bakarleri arituko dira kontzertuan. Kontzertua martitzenean aurkeztu zuten Orfeoiko buruek. "Azken urteetan ohitura bihurtu da Orfeoiak San Pedro bezperan ikasturte amaierako kontzertua eskaintzea. Bestalde, lehen orkesta sinfoniko eta guzti antolatzen ziren kontzertuen ideia hori berreskuratu nahi izan dugu eta, horregatik, aurrean aurkezten dugun kontzertua, Orfeoientzat berezia dela esango nuke" esan zuten David Azurza zuzendariak.

Erraz entzuteko egitaraua

Bergarako Orfeoiak obra melodikoa, alaiak eta, orokorrean, erraz entzutekoak prestatu ditu emanaldi berezi honetarako, gehienak kanta erlijiosoa, Gabonetakoak, izan arren.

Kontzertua, Otorino Respighi italiarraren "Antoche danze ed arie" hirugarren suitearekin hasiko da. XVII. mendeko dantzak dira eta lehen zati honetan Aita Donostia kamara orkesta arituko da bakarrik. Ondoren, J.R. Herberck austriarraren "Pueri Concinite" eskaini-

ko da. Orkesta, koro eta soprano bakartientzat konposatutako obra da. Jarraian, F. Gorriti konpositore nafarraren "Motete a la santissima virgen: surge propra" emango dute. Orkesta koro eta tenore bakartientzako musika erlijiosoa. F. Gorriti, Erromatizismoaren konpositore garrantzitsuenetakoa da. Ondoren, Javier Bello Porturen "Ave Maria" eskainiko dute. Organo eta ko-

roentzat, 1949. urtean konposatutako obra da, baina orkestarekin emateko konponketa egin die autoreak Orfeoi-koei. Beraz, kontzertu honetan estreinatuko da bertsio berri hau.

Azkenik, Camille Saint-Saëns konpositore erromantiko frantzesaren "Oratorio de Nèel" emango dute. Hamar zati ditu eta Orfeoiak, kamara orkestak eta bakarlariek eskainiko dute.



Bergarako Orfeoia Miramonen, Euskadiko Orkestaren egoitzan, Opus III Perkutsio taldearekin aurtengoa

IZADI PILI GISASOLA

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 beheka.
☎ 943 76 58 83

LEGO

**WATCH
SYSTEM**

Orain zeure eskura Etxeberrian.

Bidekurutzeta 16 BERGARA. Tf. 943 76 23 94 - 943 76 12 65.

ETXEBERRIA erlojutegia

Gallastegi

Jostundegia

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

Goi mailako musikariak

Bergarako Orfeoiaekin batera, Aita Donostia kamara orkesta eta hainbat bakarlarik hartuko dute parte emanaldian. Kontzertua Juan Jose Menak zuzenduko du. Aita Donostia eta J. Guridi kamara orkestatoko zuzendaria da eta, azkenaldian, Bilboko eta Euskadiko orkesta zuzendu ditu. Horrez gain, estatuko eta nazioarte mailako hainbat orkesta zuzendu ditu.

Aita Donostia kamara orkesta, hariz-instrumentuz osatutako orkesta da eta 17 musikarik osatzen dute, orkesta txikia da, beraz. 1996an sortutako taldea da eta Euskal Herriko musikari gazte osatuta dago. Kalitatezko proiektu musikalak egiten interesatuta daude. Ibilbide laburra izan arren,

hainbat emanaldi eskaini dituzte, tartean 1996ko Errenteriako Musikasten edota Bilboko Filarmonia Elkartean, eta oso kritika onak jaso dituzte.

Bestalde, bakarleri lanetan honako hauek arituko dira: Gerardo Gifon organoa, Donostiako Orfeoiaekin jotzen duena; Maria Jesus Ugalde soprano bergararra, Capilla Peñaflovida eta Bergarako Orfeoiko kidea; Yolanda Sagarzazu mezzosopranoa, Errenteriakoa, RTVEko koroko partaidea; David Azurza altoa, Bergarako Orfeoiko zuzendaria eta Capilla Peñaflovidako kidea; Pedro Ormazabal tenorea, donostiarra eta, azkenik, Jagoba Fabrique bajoa, donostiarra, hau ere RTVEko koroko kidea.

Bai bakarlariak, bai Aita Donostia orkestatoko musikariak eta bai zuzendaria profesionalak dira.

Kontzertuko sarrerak 1.000 pezetan jarriko dira salgai Kultur Etxean eta Ariznoa eta Usoa tabernetan; bestalde, kontzertu egunean takilan ere erosi ahal izango dira. Emanaldia gaueko 10:00etan hasiko da eta aurkezpen lanetan Nora Askargorta kazetaria arituko da. Kontzertuak ordu eta laurden inguruko iraupena izango du.

75. urteurreneko ospakizunak irailan hasiko dira

Bestalde, Orfeoiko buruek aurreratu zuten, irailaren 18an emango zaie hasiera Bergarako Orfeoia 75. urteurreneko ospakizunei. Egun horretan, Udaletxeko pleno aretoan aurkeztuko dute urte osorako egitaraua. Ospakizunak iragarriko dituen kartela Riki Azkargorta pintore bergararrak egin du.

Besteak beste, liburu bat eta disko bat argitaratuko ditu Bergarako Orfeoia. Dagoeneko grabatu dituzte disko kantu batzuk; datorren zapatuko kontzertua ere garabatuko dute B

erreseina



Kepa Junkera
Bilbao 00:00 h
Folk

Izenburuan bere hiriari buruzko aipamena egin badigu ere, mugak gainditu eta kulturak nahastu nahi izan ditu Kepa Junkera trikitilariak azken lan anbizioso honetan. Lehen mailako kolaborazioak izan ditu, gainera, "Bilbao 00:00 h" izenburuko disko bikoitzean; batzuk aipatzearren, Liam O'Flynn, Pedro Guerra, Paddy Moloney, Carlos Nuñez, Béla Fleck, Oskorri, Dulce Pontes eta Benito Lertxundi. Eraitza, txundigarria benetan: soinu eta ekoizpen bikain eta landua, 110 minutuko musika, 23 abesti (bost kantañuak) eta 150 orrialdeko liburua. Madrileko Resistencia zigiluak apostu handia egin du oraingoan, urteko lanik azpimarragarriena izan daitekeen honekin

- Resistencia. 3.300 PTA

lehiaketa

Andres Calamaro

Andres Calamarok bihar, zapatua, Jam-en eskainiko duen kontzertua dela eta, antolatutako lehiaketarako gutun ugari jaso ditugu eta denek zuzen ipini dute erantzuna. Gogoratu duzuen, Andres Calamaro zein taldetako abeslari zen galdeztzen genizuen eta erantzuna **Los Rodriguez** zen. Honako hauei egokitu zaie sarrera bana: Amaia De Manueles, Aitziber Etxeberria, Paul Garitano, Igor Gallastegi, Silvia Romero eta Amaia De Zerio.



kontzertuan.



DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



KORTA-ZAR
Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoen espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Mandoak batetik bestera eramaten dituenak. 2. Alaikiro. Begi-distira. 3. Laur langintza. 4. Emakume izena. Bokala. Diruzko zigor. 5. Lasaitasuna. 6. Kontsonante errepikatua. Euskal sindikatua. Sufrea. Potasioa. 7. Oxigenoa. Autonomia Elkarte. Larru. 8. Malko jarria. Bokal errepikatua. 9. Gizon izena. Barreak. 10. Untzia lotu. Bokala.

Goitik behera

1. Goibeltasuna. 2. Emeak gurasoekiko. Erdi, hitz elkarketan. 3. Kolore askotako. Idor. 4. Esaten du. Hitza. Bokala. 5. Anarkista. Partitiboaren ezaugarria. 6. Baztango herria. Adarra. 7. Bokala. Serbiako hiria. Zirt..., erabaki! 8. Zuhaiska mota. Alderdi espainiarra. 9. Hari nion, eta zuri... Gaueroakoa. 10. Pluralean, fruitu mota. Betekada.

Soluzioa

Ezker eskuma
1. Mandoak 2. Alaikiro 3. Laur 4. Emakume 5. Bokala 6. Kontsonante 7. Oxigenoa 8. Autonomia 9. Gizon 10. Untzia
Goitik behera
1. Goibeltasuna 2. Emeak 3. Kolore 4. Esaten 5. Anarkista 6. Baztango 7. Bokala 8. Serbiako 9. Alderdi 10. Pluralean

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberebizbar



Bergarako zein kaletan aurki ditzakegu atari eta balkoi hauek?

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Artekale pizzerian** izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Alaitz Aranarentzat** izan da: Artekale pizzerian bi lagunendako afaria. Zorionak Alaitzi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Gabiria dorretxea**. Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**.

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Bergaran daukagun Monumentu kalifikatueta bat berriztuko da. Zein?
A- Moiu Dorrea
B- San Pedro eliza
C- Egin Mallea etxea
- Realak, BKEko harrobiko futbol jokalaritzaren gazte bat fitxatu berri du. Zein?
A- Pako Santiago
B- Imanol Cabanillas
C- Jon Andueza
- Begarako Orfeoia zein taldekin batera joko du datorren zapatuan Udal Frontoian?
A- Opus III perkutsio taldea
B- Bilboko Orkestra Sinfonikoa
C- Aita Donostia kamara orkestra

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izena-deitura:

Telefonoa:

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**



Ixaun
j a t e t x e a

Elosu auzoa
Tf. 943 15 05 50

Urretxuar honek 8 urte daramatza Zabala jatetxean tabernari lanetan. Motorzale amorratua, aurten kotxeen Euskadiko mendi igoera txapelketan parte hartzen ari da. Gorlako auto igoeran, emakume bakarra izan genuen.

Antzine Arroyo

Motor mundua gizonezkoena da?
Ez dut uste, emakume gidari dextente dira Estatuan.

Zer esango zenieke emakumeek gidari txarrak direla diotenei?
Hori ikusteko dagoela.

Noiz atera zenuen gidatze karneta?
18 urterekin.

Mutilarekin kotxean zoazenean, nork gidatzen du?
Biok, baina normalean berak.

Kotxean, bakarrik ala lagunduta?
Konpainiaren arabera.

Gidari on baten kalitateak?
Pilotoen artean komentatzen dena, "buruan aire asko eta gurpiletan gutxi".

Zein kotxe daukazu?
Peugeot 205 Rallya lasterketetarako eta Peugeot 306 bat egunero erabiltzeko.

Eta zein izatea nahiko zenuke?
BMW M3a.

Motorrik badaukazu?
Bai, Yamaha 650 bat.

Gidariok mekaniko onak zarete?
Gehienak bai, baina ez da nire kasua.

Badakizu gasolina zenbaten dagoen?
111 pezetan, ezta?

Zeinekin joango zinateke kopiloto?
Carlos Sainzekin.

Gustoko kotxe proba bat?
Kataluniako Rallya, adibidez.

Zirkuitu bat?
Jaramakoa.

Tabernako bezeroen artean jarraitzaile asko dituzu?
Baaaai!! (barre).

Motor kontuen gainean berba egiten duzu beraiekin?
Askotan, bai.

Zer gosaltzen duzu?
Kafe hutsa.

Janari bat?
Ostrak. Bestalde, denetik jaten dut, ez dago jan ezin dudan janaririk.

Edari bat?
Whiskya.

Urtaro bat?
Uda.

Asteko egun bat?
Ostirala.

Filme bat?
"Una proposicion indecente".

Aktore bat?
Richard Gere.

Musika talde bat?
Roxette.

Bidaia bat nora egingo zenuke?
Karibera.

Bidaiatzeko garraiobiderik onena?
Kotxea.

Nork irabaziko du mundiala?
Espainiak. B



ARDATZA

Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

FRANTSES IRAKASKUNTZA

Ikastaro
trinkoak
uztailaren
6tik 24ra

Izena emateko epea:
uztailaren 3ra arte.



Informazio gehiago:
Mizpildi 3, 1-ekerra. BERGARA.
Tf. 943 76 30 55
Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00

JOSEAN SAN TORCUATO



plumila-erakusketa

NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

1933ko Karnabalak

Sasoian ez bagaude ere, zeini ez zaio gustatzen Karnabaletako argazkiak ikustea? Guri bai, behintzat, aspaldikoa eta zuri-beltzekoa izan arren; gainera, hain dotore mozorro-tuta agertzen badira...

Aste honetako argazkia 1933. urteko Aratuzteetan ateratakoa da eta bertan agertzen direnak Ilarduia ahizpak dira. Hauek dira euren izenak, ezkerretik hasita: Pakita Ilarduia, Maria Ilarduia (biak bolantedun soineko eta zapi ederrekin apainduta, lepoko eta guzti), Juani Ilarduia (hiru urteko haurra, baserritar jantzita, oinetan zuekoak jantzita) eta Natividad Ilarduia (eserita eta arlekin jantzita). Argazkian, Luis Mari anaia falta da.

Argazkia: Amaia Iztueta



OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

Gaskide, S.L.

ITURGINTZA OROKORRA
GASA ETA KALEFAKZIOA

☎ 943 76 49 00

HELBIDE BERRIA:
Aritzetako San Migel 8-10
BERGARA



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Gidari onenek

OHOREZKO-MATRIKULA

merezi dute

Aldatu zaitez MAPFREera

Azkartu  itzazu zure bonifikazioak

Orain zure automobilaren aseguru aldutzea **ez zaizu ezer kostako.**

Mapfren Ohorezko Matrikula Planarekin, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).

Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzenean.**

 **MAPFRE**

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

Ileapaindegia
Estetika

Kizkur

EZAGUTU ITZAZU GURE
zerbitzu berriak

Solariuma dutxarekin
Behin betiko depilazioa, minik gabea.
Depilazioa argizariarekin (epela eta beroa)
Aurpegi-tratamenduak
Gorputz-tratamenduak
(erreduktoreak,
tinkagarriak, zelulitisaren
kontrakoak,...)
Presoterapia
Zelulitisaren kontrako
masajea
Drenatze linfatikoa
Erlajazio-masajea
Kiromasajea
Makilajea



INAUGURAZIOA ekainaren 22an 19:00etan. Bolu 51. 943 76 50 32.

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR 
Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak
San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefona: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.